

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziaren Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza* Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastora. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albatáritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurrección María Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüiaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachiteguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*. Joakin Berminghamen solasak. 2020
32. *Emil Larre*. Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*. Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*. Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez, arrazoirik ez / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratxabal*. Blanca eta Viana. Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros* (1957-2021). Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022
39. *Henrike Knörr* (1947-2008). Idazlan hautatuak. Textos escogidos. 2022
40. *Adolfo Arejita*. Faktoriako geziak. Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman: hautuak eta arrazoiak. 2022
41. *Jose Maria Agirre Egaña Lizardi*. *Bibotz begietan* eta gainerako olerkiak. 2023
42. *Isabel Etxeberria*. Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549). 2023
43. *Bonifacio Echeagaray*. Bonifacio Echeagaray, promotor y defensor del euskera. Artículos 1927-1933.
44. *Junes Casenave-Harigile*. Zortzi pastoral berri. 2024

EUSKALTZAINAK izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta euren buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Laguntzailea

Euskararen erakunde publikoa

Office public de la langue basque



EUSKALTZAINDIA

44

ZORTZI PASTORAL BERRI

JUNES CASENAVE-HARIGILE

JUNES CASENAVE-HARIGILE

ZORTZI PASTORAL BERRI

[I. TOMOA]

Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos

44

EUSKALTZAINAK BILDUMA



EUSKALTZAINDIA



JUNES CASENAVE-HARIGILE
(1924-2018)

Aita Junes Casenave-Harigile 1924ko apirilaren 4an Urdatx/Santa-Grazi herrian (Zuberoa) sortu zen. Aita biarnesa eta ama santagraztarra zituen. Apezgaia Bètharramen (Biarno) izan zen eta 1948an Betlehem (Palestina) betarramista apeztu zen.

Limòtgesen (Okzitania) hamabi urtez hizkuntza klasikoko irakasle izan zen eta gero Donapaleun, Etxepoar kolegioko zuzendaria izanez (1964-1981). Irakasleen heziketaz arduratu zen eta pedagogia ikuskaria izan zen. 1981ean Zuberoara itzuli zen apez gisa, bi urtez Larrainera eta ondotik Altzaira 2010a arte. AEKn ere euskara irakatsi zuen hamabost urtez.

1982an euskaltzain urgazlea izendatu zen eta 2000tik ohorezko euskaltzaina.

Bere ikerlanek alor bat baino gehiago ukitzen dute: erlijioa, mitologia, historia, etnografia, herri-sineskizunak eta medikuntza herrikoia bereziki, pastora, olerkigintza, ipuinak, euskararen irakaskuntza...

Bere literatura idazlanek sari eta omenaldi asko eskuratu dituzte.

Idatzi dituen pastoraletatik II emanik izan dira. Zuberera ikasteko eta lantzeko tresna batzuk sortu zituen: gramatika, hiztegiak, ikasteko metodo bat, lexiko batzuk eta itzulpenak.

2018ko irailaren 24an zendu zen.

JUNES CASENAVE-HARIGILE
ZORTZI PASTORAL BERRI

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren
Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,
Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Junes Casenave-Harigileren oinordekoak

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde z aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S. L.

ISBN: 978-84-127506-9-0

Lege gordailua: BI-00399-2024

JUNES CASENAVE-HARIGILE

ZORTZI
PASTORAL
BERRI

[LEHEN TOMOA]

Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2024

EDIRENGIA

Aitzinsolaza: Battittu Coyos	XIII or.
Pastorala: Junes Casenave-Harigile	XVII or.
I. AGOSTI ETXEKOPAR PASTORALA	
Lehen predikua	3 or.
Sataneria	6 or.
1. jelkaldia	7 or.
2. jelkaldia	9 or.
3. jelkaldia	11 or.
4. jelkaldia.....	13 or.
Kanta	15 or.
5. jelkaldia.....	16 or.
6. jelkaldia.....	18 or.
7. jelkaldia.....	19 or.
Kanta	20 or.
8. jelkaldia.....	21 or.
9. jelkaldia.....	23 or.
10. jelkaldia	24 or.
Kanta	25 or.
11. jelkaldia	26 or.
12. jelkaldia	28 or.
Kanta	29 or.
13. jelkaldia	30 or.
14. jelkaldia	32 or.

15. jelkaldia	33 or.
Kanta	35 or.
16. jelkaldia	36 or.
17. jelkaldia	37 or.
Kanta	39 or.
18. jelkaldia	40 or.
Sataneria	42 or.
19. jelkaldia	43 or.
Kanta	45 or.
20. jelkaldia	46 or.
21. jelkaldia	48 or.
22. jelkaldia	50 or.
Azken predikua	52 or.
II. ATARRATZE PASTORALA	55 or.
Lehen peredikua	57 or.
Sataneria	59 or.
I. jelkaldia.....	60 or.
Kanta <i>Gure erreka</i>	61 or.
2. jelkaldia.....	62 or.
3. jelkaldia.....	64 or.
4. jelkaldia.....	65 or.
Kanta <i>Gorünea</i>	67 or.
Sataneria	68 or.
5. jelkaldia.....	69 or.
6. jelkaldia.....	71 or.
7. jelkaldia.....	72 or.
Kanta <i>Güzientako ekia</i>	73 or.
8. jelkaldia.....	74 or.
9. jelkaldia.....	76 or.

10. jelkaldia	78 or.
11. jelkaldia	80 or.
12. jelkaldia	82 or.
13. jelkaldia	83 or.
14. jelkaldia	85 or.
Kanta <i>Jinik delarik</i>	86 or.
15. jelkaldia	87 or.
16. jelkaldia	89 or.
Sataneria	91 or.
16. jelkaldia	92 or.
Kanta <i>Lür bontan</i>	94 or.
17. jelkaldia	95 or.
Kanta	97 or.
18. jelkaldia	99 or.
Kanta <i>Sümurgile jeiki</i>	101 or.
19. jelkaldia	102 or.
20. jelkaldia	104 or.
21. jelkaldia	106 or.
22. jelkaldia	108 or.
Azken perediküa	110 or.
Kanta <i>Atarratze Jauregian</i>	112 or.
III. BARKOXE PASTORALA	115 or.
Lehen perediküa	117 or.
Sataneria	119 or.
1. jelkaldia	120 or.
2. jelkaldia	121 or.
Kanta <i>Goiz jeiki da zobardia</i>	122 or.
3. jelkaldia	123 or.
4. jelkaldia	124 or.

5. jelkaldia	125 or.
Kanta <i>Bakea</i>	126 or.
5. jelkaldia	127 or.
Sataneria	128 or.
7. jelkaldia	129 or.
8. jelkaldia	130 or.
Kanta <i>Maitarziina</i>	131 or.
9. jelkaldia	132 or.
10. jelkaldia	133 or.
Kanta <i>Bedatxean begaisxtiak</i>	134 or.
11. jelkaldia	135 or.
12. jelkaldia	136 or.
Kanta <i>Ürzo lüma gris gaxoa</i>	137 or.
13. jelkaldia	139 or.
14. jelkaldia	140 or.
15. jelkaldia	142 or.
Kanta <i>Ni deitzen miik</i>	143 or.
16. jelkaldia	144 or.
17. jelkaldia	145 or.
Kanta <i>libertatea</i>	146 or.
18. jelkaldia	147 or.
19. jelkaldia	149 or.
Kanta <i>algar lotüiak</i>	151 or.
20. jelkaldia	152 or.
Kanta <i>Bi berset dolorusik</i>	154 or.
21. jelkaldia	155 or.
Kanta	156 or.
Sataneria	157 or.
22. jelkaldia	158 or.
23. jelkaldia	160 or.
24. jelkaldia	162 or.
Azken perediküa	164 or.

IV. <i>DABID</i> PASTORALA	165 or.
Lehen hitza	167 or.
1. jelkaldia.....	170 or.
2. jelkaldia.....	172 or.
3. jelkaldia.....	174 or.
4. jelkaldia.....	176 or.
5. jelkaldia.....	179 or.
6. jelkaldia.....	182 or.
7. jelkaldia.....	184 or.
8. jelkaldia.....	186 or.
Kanta <i>adixkidantza</i>	190 or.
9. jelkaldia.....	191 or.
10. jelkaldia	193 or.
11. jelkaldia	195 or.
12. jelkaldia	197 or.
Kanta	200 or.
13. jelkaldia	201 or.
14. jelkaldia	202 or.
15. jelkaldia	203 or.
Kanta	205 or.
16. jelkaldia	206 or.
17. jelkaldia	208 or.
18. jelkaldia	210 or.
Kanta <i>Abneren bilotsa</i>	213 or.
19. jelkaldia	214 or.
Dabid, belariko kanta.....	216 or.
20. jelkaldia	217 or.
21. jelkaldia	221 or.
22. jelkaldia	223 or.
23. jelkaldia	224 or.

Kanta	227 or.
24. jelkaldia	228 or.
25. jelkaldia	230 or.
26. jelkaldia	233 or.
Azken hitza	236 or.

Aitzinsolaza

Aita Junes Casenave-Harigile 1924ko apirilaren 4ean Urdatx/Santa-Grazi herrian (Xiberoa) sortürik zen eta hil Bétharramen (Biarno) 2018ko setemearen 24ean. Aita biarnesa eta ama santagraztarra zütüan. Apezgei izan zen Bétharramen eta 1948an betarramista apeztu zen Bethléem-en (Palestina).

Limòtgesen (Okzitania) hamabi urtez mintzaje klasikoko erakasle izan zen eta, gero, Donapaleün, Etxekopar kolegioko züzendaria (1964-1981). Erakasleen formakuntzaz ardüratü zen eta pedagogia ikuskaria izan zen. 1981ean Xiberoalat ützüli zen apez gisa, bi urtez Larrainen eta, ondotik, Altzain 2010a arte. AEKn Xiberoako gaü eskolan ere eüs-kara erakatsi züan hamabost urtez.

1982an eüs-kaltzain ür-gaizle izentatüririk izan zen eta 2000an ohorezko eüs-kaltzain.

Bere ikerlanek alor bat beno haboro hunkitzen düe: erlijionea, mitologia, historia, etnografia, herri-sinesteak eta medikuntza herrikoia, lantareak, pastoral, olerkigintza, ipuinak, eüs-kara, eüs-kararen erakastea...

Bere literatüra idazlanek sari eta omenaldi hanitx esküalatü dütüe. Idatzi dütüan pastoraletarik II emanik izan dira. Xiberotarraren ikasteko eta lantzeko tresna zonbait ere sortü dütü: gramatika, hiztegiak, ikasteko metodo bat, lexiko zonbait...

Liburu hontan, seküla jokatüririk ez diren zortzi pastoral testü emaiten dü-tügü¹. Horik dira lehen tomoan, ordena alfabetikoan: *Agosti Etxekopar* pastoral eüs-kara batüan, *Atarratze* pastoral, *Barkoxe* pastoral eta *Dabid* pastoral xiberotarez. Bigarren tomoan, *Judit* pastoral, *Larraine* pastoral, *Lüküze Xarles Lauge-rrena* pastoral eta *San Frantzisko Xabier* pastoral argialatüko dü-tügü.

¹ Bederatzügerren bat falta da: *Maitena Basabürri*.

Aldiz frantsesez izkiribatürük diren biak ez dütügü heben emanen, eüskara-ri lehentazünaren emaitetz: *Jésus* eta *Edouard Cestac* pastoralak.

Aipa dezagün Allande Socarros² 2020an Sü Aziak argialatü züan *Pastoralen gerla Urdiñarben – 1909-1912 2. partean: Aita Junes Casenave-Harigile* gogoan libürüan:

Aita Junes Casenave-Harigile gure artetik joan zen 2018ko setemeraren 24an, 94 urtetako adin ederreala heltürük. Eüskal kùltüraren sailean ützi deikün ondoretarzüna animalekoa da: emanik izan diren hameka trajeria edo pastoral eta izkiribatürük bena oranokoan emanik ez diren beste zortzi, hiztegiak, olerkiak, ipuinak, nobela eta narrazioneak, erranaldi eta sineste zaharren biltzeak, leheneko jeien aipaldiak, erlijijoneari etxekara diren idazlanak, ützülpn lanak, artikülüak...

Idazlan horietarik andana argialatürük balin bada, hanitx dira orano-koan argialatügabe direnak eta Sü Azian üdüri zaikü gure eginbeharretan dela eüskararen ekei ezinago balios horien jenteengana helaraztea. Hor-tarako, esküetan düzün Pastoralaren gerla libürü honen bigerren partean, Aita Junes gogoan saila nahi üken dügü abiarazi.

Hontan, arren, Aita Junesek izkiribatü Orai pasterala idazlana agerraz-razten dügü, zointan ere argiki eta xeheki erranik den zer den trajeria edo pasterala, non dütüan herroak, zoin diren honen arauak eta trajeria baten zatiak, herri batetan nola den plantatzen, geroalat nola joan leitean...

Munta handiko idatzi honez gain, Aita Junesen beste lanik ere es-kentzen deitzüegü: alegia zombaiten oritaraztea, eüskaldünen sineste zahar elibaten aipatzea, Xarnatera edo Jondane Johane süen jei egüna nola os-patzen zen lehen.

Hasian hasiz, Aita Junes zenaren beste lanik ere agerrarazteko geietan gira ondoko argitalpenetan. Badügü hor pasta bat ezinago ederra eta eüs-kaldüntarzünen hazteko lehen-lehen esküartekoetarik da.

Hots, heben, Allande Socarrosen nahiarri jarraikiz, Junes Casenaveren zortzi pastoral ez ezagütürük emaiten dütügü.

Jakin behar da Junes Casenavek pastoralari büürüz libürü berexi bat püblika-tü düala *Xiberoko antzertia edo pasterala* (2011, Euskaltzaindia, Bilbo). Hor xeheki esplikatzen deikü zer den pasterala. Ber ildoan, ondoko orrialdeetan, pastora-lari büürüz idatzi züan beste testü llabür bat emaiten dügü.

² *Pastoralen gerla Urdiñarben – 1909-1912 2. partean: Aita Junes Casenave-Harigile* gogoan, 2020, Sü Azia, Maule-Lextarre, 85 or.

Bigerren Mündü Gerlaz geroztik, Etxahun Iruri ondotik, Junes Casenave dügü Xiberoako pastoralaren berpizlea. Hameka pastoral emanikeki, Jean-Louis Davant eta Pier Pol Berzaitzeki, idazle emankorrena eta jokaturikena dügü Junes.

Hona, arren, lotan ziren beste zortzi berri.

Battittu Coyos

2023-12-01



Xiberoako antzertia edo pastoralala, 2011, Euskaltzaindia, Bilbo



Xiberoko antzertia edo pastoralara, 2011

Exkerretik, Junes Casenave-Harigile, Andres Urrutia etuskaltzainburtia eta Jean-Louis Davant *Xiberoko antzertia edo pastoralara* libürüaren presentazionea (Maule-Lextarre, 2012)

Pastorala

Agerraldi antzeztü bezala, *pastoral* hitza han hor baliatürrik da. Hanitxenetan, elizetan, egüberriko ikustaldi bat da: Jesüs haurraren üngürüan, orozgain agertzen dira artzainak eta ardiak.

Xiberoan, ez da egüberriko emanaldi bat, bena egiazko antzerki bat. Antzerki zahar-zahar bat. Aitzinetik, Europa güzian zabaltzen zen. Güzietan, galdü da, Xiberoaz besteetan. Erran behar da, haatik, heben berezia dagola, eta düdagabe hortakoz dela orano bizi.

Pastorala antzerki bat da, tauletan antzezten den bizitze bat, historia bat, trageria bat. Hiru gaüza horik nahasirik daude, ez dezakegü iholaz ere berez, bat egiten düe. Jadanik hor ageri da, beraz, pastorala ez dagola beste edozoin antzerki bat üdüri. Erran dezakegü berehala, antzerki zaharra bada, Xiberoak taigabe oraikotzen düala. Horra, ene ustez, zerentako orano bizi den.

Norbait, lehen aldikoz, jeiaren ikustera joaiten delarik, harritürrik bezala egon daiteke. Antzeztokia ez ohizkoa dago. Bazter eder batetan plantatürrik, soro batetan, mendiz bai oihanez ere üngüratürrik. Taulada bera oso zabalik dago, hütsik, doi-doia mahain ttipi bat eta kaidera bat xoko batetan, oihal xuriz apaintürrik lürrealano. Gibelean ere, lüzan, oihal xuri bat, bi gaintietan sargü bat egiten düen oihal gorri bat eta urdin bat, erditan, aldiz, eraikin bat aldegainean jarririk, sarri hortik musikariek emanen beitüe. Oihal gorriaren aldegainean, debrü txotxongilo bat. Tauladak hütsik izan behar dü, zeren eta beste antzerkietan ez bezala, arizaleak, aktoreak gelditügabe harahonaka horren gainen izanen beitira, ebilka, jauzka, üngürüka.

Idazkiaren aldetik, pastoralak galtatzen dü bere antoladüra, egitüra egiten düana. Hiru zati badü: lehen perediküa, hogei bat bertseteeki nonbait; jelkal-diak, horietan beita gure antzerkiaren mamia, eta azken perediküa, dozena bat bertseteeki.

Aipatü dügü, gibleko oihalaren bi bazterretan bi oihal badügüla: xuria eta gorria. Horrek garrantzi handia badü heben, zeren eta erran beitezakegü pastorala bi aldeetarat doala. Honaren eta gaixtoaren borroka antzezten dü. Hortarako pertsonajeak birazka bat egiten düe: honaren eta gaixtoaren aldekoak. Lehenak dira gorriak, bestek, aldiz, urdinak. Beste mündükoak hala hala: aingürüak eta satanak. Horietan, bakoitxak badü, arren, bere kolorea, bena ere bere ebilmoldea, bere mintzamoldea. Horiek güziek egiten düe pastorala. Erran genezake errituz beterik den jei bat dela. Horik oro beharrezkoak daude eta ezinalda dira. Oro har, pastorala, üngürükaz, müsikaz, dantzaz osotürük da. Bestela erraiteko, Pastoral osoa, üngürüka bat da, müsika edo kantü bat da, dantza bat da.

Horik oro dira pastoralaren berezitarzünak, bai eta haren zahartarzünaren herexak. Ez da harrigarri xiberotarrak horri lotürük balin badira. Hortan ikusten düe eta ere bizitzen beren kùltüraren agerraldi haütüa eta handiena. Balin badügü beste jeirik, hala nola maskaradak, düdagabe harek dü lehentarzüna begiratzan gure artean. Lüzaz ailitz hola hola!

Xiberoko Pastorala

Bere erranahi arruntean, pastorala da antzerki bat non arizaleak artzainak diren. Besteetan hala balinbada, heben ez da hala.

Xiberoko pastorala antzerki bat da bai, bena hor arizaleak ez dira orozgain artzainak. Zoin nahi izan ditake: errege, soldado, politika gizon, saintü, edo beste jente arrunt, ikusleek mira ditzakienak edo ikusmolde bezala har.

Xiberoko pastorala jente hanitxeen aitzinean emaiteko eginik da. Hala da emanaldi bakoitxarentako hiru lau mila jiten dela. Hortakoz erran dezakegü antzerki herrikoi bat dela. Hala da ikusiz nola antolatürük den. Emanarazlea da herria, arizaleak herritarrak dira, ez antzerkilari bereziak, ez batere beren ganoaren arbera haütatürük. Beren nahitara ari dira, edozoin langile. Hila-bete zonbaitez biltzen dira ikasteko saldoxko bat. Tauletara iganen ez direnak, zerbaitetan ariko dira, hainbeste saihetseko eginetan: güne edireiten eta antolatzen, jauntsiapaintzen, taulada adelatzen, sargia biltzen, gastüen aitzinikustez, ikuslarien gidatzen oro ontsa joan dadin. Lankei horietan ehün bat izan ditake. Herrikoia da lanaren ikusmolde bezala. Emanik da bakoitxak bere gogoaren arabera asma dezan. Zeren eta erranik zaion historia bat, eginak erranik zaitzo, bena berak bere bürüan erabilten dütü. Bera pastoralaren egile bezala daiteke eta ez ikusle baizik.

Arizaleen sailak bi gaintikoak dira: honak eta gaixtoak. Saldoxka bakoitxaren ondoan agertzen dira beste mündükoak: Aingürüek honer lagüngoia ekarten deie, Satanek gaixtoer. Berezte hori beharrezkoa da. Horrek dü manatzen nola plantatürük den antzokia. Kanpoan date, bere ixiltarzünaren eta edertarzünaren arabera haütatü güne batetan. Tauladak badüke hamabi metra bere zabal osoan. Hütsik dago. Doidoia kaidera bat xoko batetan, errejenta hor jarririk egonen beita pastoralaren lüzean. Aitzinea gibeletik berezten dü oihal xuri batek, ostoz eta liliz apaintürük denak. Oihalaren bi bazterretan, ikuslearer бүрүз bi sargia, esküinean urdina, honen sargia, eskerrean gorria gaixtoen sargia. Zeren margoak dütü arizaleak berezten. Antzokian zolan, gibelean eta erditan, hiru metrako müsikarien egongia. Sargia gorriaren aldegainean Satan igikor bat. Hola, besterik ez, xühürki.

Joküaren emaitetan, talde bakoitxak badü bere eбилteko kraka: baratx eta segür urdinentako, larri eta bizi gorrientako, aidean bezala aingürüentako, saminkor eta lehiatü Satanentako. Ber gaüza erran genezake mintzoarentako eta egiten dütüen keinü güzientako. Giza arizaleek makila bat badüe. Beren eбилaldietan joka erabilten düe, bakoitxak heben ere bere antzerki jitearen arabera.

Orai ekarririk gira ikustera arizaleak ez direla ez mintzatzen ez eбилten. Beren emanaldi osoan, kantan eta dantzan ari dira. Hiru notako baseresi bat erabilten düe, bakoitxak bere egitekoaren arabera eta bere eбилaldiaren arabera tauladaren gainen.

Arteka badira kantoreak, edo bederazka edo saldoka emaiten direnak, beti ezbardinak direnak eta beste zonbait ahaide zaharrak direnak. Satanek, beren gaintitik, piko bereziko arin eta xoragarri dantzak emaiten dütüe.

Ekarririk gira aipatzera xiberotar antzerkiak begiratzen dütüala arau tzorrotza. Honek biltzen dütü bakoitxaren eta saldoaren zotüküak, bai eta lagüntürük diren müsika. Beharrezkoa da eta ez leiteke iholaz ere hunkirik izan, pastoralaren izatea jo gabe. Arizaleak berak haren menpeko jarri behar dü, ez dü behar erakutsi zer dion berartan, bena egite sakratü bat bezala hartzen dü.


Ontsä ageri da, arren, ekei zahar baten aitzinean girela. Aldiz ezgünez ez mügatürük, zeren bizitze osoa hartzen beitü eta zonbaitetan ere menteak. Idazki orotarik agertzen da: kontakizün, olerki ezbardin, lazgarriak, erriegingarriak... Idazkiak hiru zati dütü: lehen perediküa, hogeï bat kobla düana, gertakaria, eta azken perediküa, hamabost bat koblatan. Güzia koblatan idatzirik dago, hamasei zankotako bi zatitan, lau eбилalditan.

Erran genezake pastoralak bere izatea gure eüskal jitetik elkitzen düala. Prefosta idatzi zaharrik ez beita, ez da errex haren bidearen argitzea. Bena düdagabe gure jakitate aberatxean hoinarritürik da. Badütüğü olerkiak, maskaradak, albadakak, antzerki erriegingarriak eta beste. Orozgainetik aberastarzün harriarria badüğü: gure mintzoa zahar zaharra da, milaka urtetakoa. Bestalde pastoralak hatsarre hatsarretik beste mündü batetan sarrarazten gütü. Barne barnean ikus genezake zer den guretako mündüa, nola mitologian ere ediren genezakean ikusmolde bat beno haboro.

Xiberoa harro da ohidüra zaharra etxeki düalakoz eta beti baztertü gabe oraikotzen düala. Mündüko gizartean aberastarzün ekarten dü, berezia.

Junes Casenave-Harigile

2011-01-30



Taulada, Louis COLAS-en marrazkia (1922)

(www.euskonews.com/052Izbk)



Arizalea mintzatzen, makila eskü esküinean etxekitzez
Xiberoko jauna pastorala
(Ezpeize, 2008) www.eke.org



Dantzariak tauladan, Xahakoa pastorala
(Barkoxe, 2010) www.kazeta.info

[1]

AGOSTI ETXEKOPAR PASTORALA

Junes CASENAVE-HARIGILE

Lehen predikua

1. Agur zuei, jende onak;
bildu zarete, oste handian,
Eskentzen dugun honetan,
zerbaitxo jakin nahian.
2. Hemen aipatuko dugu
bai Etxekopar apaiza;
Donapaleuko zen sortzez,
aditu haren bizitza.
3. Agosti zuen izena,
hamabortz aurride ziren,
Aita posta legarkari,
ama lan askotan etxen.
4. Familia zen zuzena
Jainko Jaunari guziak
Lotuak maitasunean,
oi! Eskerronez beteak.
5. Ikas lanetan bazuen
harrigarri erraztasuna
Eta guzieren artean,
hartzen zuen lehentasuna.
6. Nahi izan zuen orduan
apezgaitegian hasi;
Matematikan zuten
Donapaleun ezarri.

7. Hogoita lau urte zuen
Oloron apaiztu zenean;
Hango apaiz elkarteko
kide bizi zen lanean.

8. Mixel Garikoitz apezak
sortu zuen anaidia;
Nahi zuen han parte hartu
eramanez ber bizia.

9. Mixelen ondotik zituen
barreatu bere eskasak,
Haren manuz gida zitzan
anaien lehen urratsak.

10. Eta Mixel hil zenean
izan zen haren ondoko;
Haren bizkar zitekeen
utzi zuen lana oro.

11. Baionan eta Erroman
egin zuen indar bai indar,
Garikoitzen anaidia
betikoz zezaketen onar.

12. Betlehemera irazi zuen
apezgaitegi berria;
Lagun ona izan zuen
arabo seror argia.

13. Argimeta bildu eta
lan egin zuen Erroman;
Mixel santu ezar lezaten
hara askotan bazoan.

14. Osasun aldetik beti
bazituen arrangurak;
Bainan eginbideetan
beti ere indar berak.

15. Bizitza hori dezagun
algarrekin ikus orai,
Santu horren itzalean
gaitezen gu ere bizi.

Oro joan

Sataneria

Jelki Satan eta Inpiltu zerbitzaria

16. **Inpiltu**
Nik, Satan, ikusten zaitut
egun zinez alagera;
Nondik, ote, heldu zira,
gaizkiaren arrangura?
17. **Satan**
Donapaleun nintzela,
badakik aspaldidanik;
Han Etxekoparekoak
Izan nahiz atzemanik.
18. **Inpiltu**
Onbidean beti daude
aita, ama, eta haurrak,
Jainkoaren legeetan
denek jarritz beren garrak.
19. **Satan**
Ene zerbitzari ona,
betidanik zain nengoen
Nola, beraz, eri gaitzak
azkarki joko zituen.
20. Familia dolutan da,
bortz haur hil dira etxean;
Bozkario erakuts ezak
jauziak emanez biek batean.

Biak dantza; joan

I. jelkaldia

*Jelki Agosti Etxekopar, apaiz jantzian, Jan-Pierra aita, Nineta ama,
Maximo anaia, Madalena, Julia eta Eugenia arrebak, eskuin*

21. **Agosti**
Botzik nago zuen artean,
Aita, ama, aurrideak;
Batxileretarik lehen,
horra hortxe ageriak.
22. **Nineta**
Gonzagako Luis santuak
lagundu hau sail horretan;
Otoizten duk badakiat
hire egun guzietan.
23. **Jan-Pierra**
Eskerrak eman itzaiok
zeren laguntzen hau ondo;
Hire apezbideetan
izan hezan lagun gero.
24. **Julia**
Enetzat oritzapen bat,
otoitz hauetan, Agosti,
Jainko Jaunari emanik,
hi bezala nadin bizi.
25. **Maximo**
Ameriketan bizi den
Ebaristok jakin beza;
Harat ni ere joango naiz,
lan handi han egitera.

26. **Madalen**

Mundu honetan badugu
bakoitzak gure bidea;
Baina beharrezkoa da
guziok bat izatea.

27. **Agosti**

Jainkoak bere zaingoan,
bere zentzutasunean,
Bihurtezinez hartzen nau
orain bere alorrean.

28. Zeruko eta lurreko

Erregearen ministro:
Zer zori aintzagarria,
hori bai sail gaingaineko.

Oro joan

2. jelkaldia

*Jelki Jan-Pierra Etxekopar, Loustaunau Donapaleuko
ikasetzeko buruzagia, Pagadoi, Etxepare, Barbasta ikasleak, eskuin*

29. **Jan-Pierra**
Agostik lan ederra du,
badakit duen ganoa;
Zorionez ikusten dut
apaizteko duen gogo.
30. **Loustaunau**
Gotzainak Donapaleun
ezarri du irakasle;
Ez du atsedetik hartzen,
bere lana egin arte.
31. **Etxepare**
Bere egitekoetan
agertzen da axolati;
Eta gogor izangabe
kemenez beterik beti.
32. **Barbasta**
Harekin dena argi da
matematika idorra,
Eta espainol mintzoan,
badu jakintza azkarra.
33. **Pagadoi**
Goiz gau oroz egiten du
logelan bere otoitza;
Mezan ere kantatzen du:
Hunkigarri haren botza!

34. **Jan-Pierra**

Lan buruzagiek ez naute
orain ondo ordaritzen;
Bainan Agostik gaitu hor
itxaropenez betatzen.

Joan

3. jelkaldia

*Jelki Agosti, Elizeire, Axate, eta lagunak eskuin;
Gonzalez, Kamino, Kaballero karabineroak, ezker*

35. **Gonzalez**
Norat zoazte zuek hemen,
Makila, jantzi hauekin?
Guduan sartzen zarete
nahi dut hementxe jakin.
36. **Elizeire**
Ez dugu holako asmorik,
Iruinerat ari gira,
Han gure adixkidea
Elio jauna ikustera.
37. **Kamino**
Mila deabru, hori to
egiazko gezurtia!
Aspalditik Elio jaunak
Iruinea du utzia.
38. **Axate**
Donapaleun da gurekin
espainol irakaslea.
Orain oportretan dago,
Iruinean du etxea.
39. **Kaballero**
Ez duzue agiririk:
hau da bai harrigarria!
Tiro batez nik diozuet
galaraziko bizia.

40. **Agosti**

Gauko hartu nuen etxea
erre da gauan berean;
Behartu zaut laster jalgi
guziak utziz barnean.

Egin guduka; lagunak nausi; denak joan

4. jelkaldia

*Jelki Agosti, Jan-Pierra aita, Nineta ama, Luziana,
Madalen arreba, Aizager, Lacroix gotzaina*

41. **Madalen**
Egunko egunarekin
oi zer bozkarioa dutan
Agostik berak emanik,
Jauna baitut hartu nitan.
42. **Laziana**
Ni naiz haren haur laguna
nik ere Jauna dut hartu;
Eta ni, arren, bozten naiz
Agosti baita apaiztu.
43. **Jan-Pierra**
Bere burua ahantziz,
bizi da beti apaiza,
Uko egin behar baitu,
sor dadin Jainkoaren aintza.
44. **Lacroix**
Oloron izendatzen zautut,
ikusiz zure ahala;
Han bai apaiz lagunekin
bete zazu zure saila.
45. **Agosti**
Zure nahia dut eginen:
Lilluraturik naiz, jauna,
Ene aitak baitu orain
hiri horretan bere lana.

46. **Aizager**
Han hobekin izango da
baztertuz bizi gogorra;
Eta zuk errazkiago
baliatuz zure indarra.

Oro joan

Kanta

Errepika

Apaiz naiz betikoz jarri,
Jaunari lotua nahi,
Haren adixkide mami,
Bai eta kuxelukari.

[1] Jesus da Jainkoaren bildotsa,
Hartu zuen bihoztoikin urratsa,
Igo kalbarioko aldatsa,
Gureztat eman azken hatsa;
Hori da opari aberatsa,
Garbitzen baitu jende ahatsa.

[2] Bil dekadala indar guzia
Jaunari emateko bizia,
Hari egon nadin atxikia,
Zeren eta baita gurgarria,
Eta maite baitu gizadia,
Izan nadila artekari.

5. jalkaldia

Jelki Jan-Pierra aita, Klara, Maite, Borda, Xamalbide, eskuin

47. **Jan-Pierra**
Zer grazia dugun hemen,
Agosti dugu aldean;
Beraz, bihotz onez gaitu
laguntzen gure nekean.
48. **Klara**
Bainan egiten du ere
Elizan eginbidea
Eta erakusten digu
Hartu behar den bidea.
49. **Maite**
Argiki esaten digu
Berrionaren egia,
Behar dugula bermatu
horretan gure bizia.
50. **Borda**
Agosti apaiz gaztea
tieso dago eta larden
Eta ere maitagarri,
bere egintzetan kemen.
51. **Xamalbide**
Mezetan mintzo delarik
ez ote gaitu xoratzen?
Arrunkin ari da beti
eta guk guziak ulertzen.

Joan

Sar aingeruak; kanta

52. Gazte Jaunari emana,
orai dago apaiz zuzen,
Hemen aipatuz Agosti,
santu bat dugu goresten.

53. Ikastera ekarria,
egin da goizik jakintsu
Eta egiaz goren da,
bere jitean ospetsu.

54. Santu baita, egingo du
gero ongi handiena,
Jainkoaren ontasunak
bendikatuko duena.

6. jalkaldia

*Jelki Sandrina, Magali, Jana, Marion, Gabi, Elisabet,
Matilda, Josefina, ezker, gurutzazez*

55. **Sandrina**
Infernuko deabruak
Agosti eraman beza;
Gaizturik nun zuen aurrean
ikusiz haren bizitza.
56. **Magali**
Alageratzen nun ni ja
familiak baitu neke
Eta garait ez balitza
haboro botzik naiteke.
57. **Jana**
Ebaristo anaia bai
Elizatik hurruntu dun;
Ez dezan, arren, berriz bil,
egin ahalak egin ditzagun.
58. **Marion**
Harremanetan sartu dun
berri Mixel Garikoitzekin
Anaidi bat sortu duena;
nahi dun bizi harekin.

Joan

7. jelkaldia

Jelki Agosti, Mixel Garikoitz, Duhalde, Irigarai, Goiheneix, eskuin

59. **Agosti**
Pozten naiz hartu baitnauzu
zure anaidian kide;
Hau da nere gutizia
hor egin dezadan bide.
60. **Mixel Garikoitz**
Beha zure osabari:
hil zen hamabortz urtetan;
Harrigarri argi bazuen
ezagutzak Jainkoatan.
61. **Duhalde**
Zorion dugu Oloron,
hor baitzaude irakasle;
Denek izan behar dugu
guk gazteen jarraibide.
62. **Irigarai**
Julio Rossigneux-rekin
zabaldu zaizu gogoa,
Eta hobekitu duzu
jakitate klasikoa.
63. **Goiheneix**
Eskolatik kanpo duzu
han eta hor egiten lan,
Seror anitzen zerbitzu,
bihotz Sakratu elizan.

Joan

Kanta

Euskaldun izatearen erroa
Da dudarik gabe gure mintzoa.
Badakigu dela lehenekoa.
Hartzen badu bizitza oraikoa,
Izango dugu ere gerokoa,
Egingo digu jite betikoa.

Txistu eginez delarik txoria,
Bertan agertzen da ere ekia,
Hedatzen du orotarar argia.
Arpatuko da lurrean azia,
Sortuko du ere bere lilia,
Eta gero emango du bihia.

Ausart hadi Euskaraz mintzatzera,
Lehia iturrian edatera,
Hire egariaren eztitzera.
Orduan joan haiteke ereitera,
Eta geroago uzta biltzera,
Fruitu eder eta on gozatzera.

8. jelkaldia

Jelki Iriart, Salaberri, Etxeberri, Uhart, fraidegaiak, eskuin

64. **Iriart**
Fraidegai irakaslea
Agosti, laket da hemen,
Miratuz bazter ederrak,
ixiltasun edireiten.
65. **Salaberri**
Goiz guziez ikusten du
Mixel Garikoitz gidari.
Aholkuak izan eta
kaperan biltzen du argi.
66. **Etxeberri**
Lan anitz baitu Mixelek
ekarten dio lagungoa
Haren eragileburu
handi du egitekoa.
67. **Uhart**
Gogozkaldi ematen du
irakasle guzieri,
Eta ere anitzetan
Igoneko seroreri.
68. **Salaberri**
Kolegioak barrena
egiten du ikustaldi,
Gauzak barnatik zulatuz,
nola behar duten bizi.

69. **Uhart**

Eraman gaitu harekin
mendi gora batetara,
Bera, gu, urrats onean,
eguna igaraitera.

70. **Etxeberri**

Eta esan dezakegu:
gozo izan da segur;
Han begikaldi ederra,
ezne eta ark6aitzeko hur.

Joan

9. jelkaldia

Jelki Agosti, Jan-Pierra aita, Nineta ama, eskuin

71. **Agosti**
Galdu dugu gure aita:
Mixel zendu da goizegi;
Hainbertze zuen egiten,
uzten digu hutsa handi.
72. **Nineta**
Seme, izan zazu indar,
mundu hau da kanbiakor,
Badira gora beherak
Jainkoari mina aitor.
73. **Jan-Pierra**
Jainkoa da berme gaitza,
bizitzan dugu laguna;
Ahulezian da kemen,
sortzen digu zoriona.
74. **Agosti**
Igokunde egunean
baitu azken hatsa eman,
Bai eta santu baitzen,
hor zerurako urratsa.

Joan

10. jelkaldia

Jelki Bourgerie, Cabanne, Calmet, Lejeune eta etsaiak, ezker

75. **Bourgerie**
Ala mila deabrua!
hil duk Garikoitz apaiza;
Sartzen duk nahaskeria:
Anaidiak goza beza.
76. **Cabanne**
Gotzaina ari duk bortxaz
ezarri nahiz manuak.
Orduan anaiak dutuk
oso osoa galdurik.
77. **Calmet**
Anai zaharxko bat ere
plantatu dik buruzagi;
Erromarako berririk
iholaz ere ez dik nahi.
78. **Ferry**
Beren administraritza
diozesirentzat dik bilatzen,
Boto ez beharrezkoak
anaiek egin ditzaten.

Joan

Kanta

Orotarat hedatzen da goizanko lana,
Haatik berantugabe heldu da beroa.
Haize goxoxko batek du eztituren oro,
Zeruan ez baitateke goibelik haboro.
Baina distiratuko du orduan ekiak,
Argiz beteko baiditu hur bazter guziak.
Margo ezbardinak ditu apaintzen liliak,
Ixuraturik ditugu haueri begiak

Nere bizitza orai dago ilun iluna,
Baina jada ikusten dut jalkitzen eguna.
Beltza balinbadut ere bizi oraikoa.
Hala hala agertzen zait zohardi geroa,
Igurikantzaz beterik aurrera banoa,
Bidean izanen baitut handi bozkarioa.
Orduan, etsitugabe, bihotz eta gogo,
Orozbatkoz albidatez azkarturik nago.

I I. jelkaldia

Jelki Agosti, Bordato, Barneix, Oihana, eskuin

79. **Agosti**
Mixel Garikoitz hil dela
badu hamar urte jada
Eta haren ondokoa
Chiru anaia zendu da.
80. Min handi ere izan dut
nere amaren hiltzean;
Gurutzea eskuan zuen
eta joan da bakean.
81. **Bordato**
Gotzainak beti nahi du
anaiak bildu diozesian;
Ezagut ditzan Erromak
badukezu zer egin lan.
82. **Barneix**
Halere izan berri da
aitzinamendu ederra,
Zuen manuak dituzue
zuen nahien arabera.
83. **Agosti**
Baina oraino badugu
bide anitz egiteko,
orozbakoz Erromari
gure jitea lortzeko.

84. **Oihana**
Lan anitz egiten duzu,
bai eta eri bularra;
Ageri da baduzula
atsedenaren beharra.

85. **Agosti**
Jainkoaren eskuetan
dut nere bizi guzia,
Mixelek zeru gainetik
gu oroz badu benia.

Joan

I2. jelkaldia

Jelki Lacroix gotzaina, Bordaxar apaiza

86. **Bordaxar**
Serora bat argiduna
Karmel serorategitik
Jin da zuri agertzera
zer berri duen zerutik.

87. **Lacroix**
Argi bereziak ditu
eta harritua nago
Jainkoak digu igorten
zuzenean ibilteko.

Sar Jesus gurutzizatuaren Maria eta Dartigaux anderea

88. **Maria mintza**
Jaunak xoraldi batetan
jakinarazi dit eni
Afera behar duzula
Erromarat helarazi.

89. Nik erranik badakizu
etsaiak nor ote diren;
Laster ari behar duzu,
zeren bertan zira hilen.

Gotzaina joan

90. **Dartigaux**
Eta zu Bordaxar jauna
zoaz Erromara berala,
Gotzain, anaien paperekin,
Jainkoak nahi du hola.

Joan

Kanta

- [1] Gaua heldu da ekarriz ilun beltza
Eta ez da ageri zer den eretza;
Doi doia txut erreka ondoan haltza
Eta senditzen baitut barnean hotza,
Noiz argituko duen haiduru natza.
- [2] Hara zeruhertzean goizozkorria,
Hara gibeletik jalgitzen da ekia,
Eta soroan zabaltzen da lilia,
Zuhaitzean txistuz ari da txoria,
Marrakaz artegi zolatik ardia.
- [3] Honek edo harek egarten du gaitza;
Hauentzat zinez gogorra da bizitza,
Eta jorik dute guziek gorputza,
Bai eta zulaturik beren bihotza.
Nondik ote izango dute laguntza?
- [4] Zuek ekar liezaiekete argia,
Zuen hitzak jo diezaieke beharria.
Orduan zaletuko zaie mihia
Bai eta hitz emango ezti eztia.
Gozatu lezakete berriz bizia.

13. jelkaldia

Jelki Etxegoin, Borda, Keheila, Lahargu, Barneix, eskuin

91. **Etxegoin**
Agostik egun guzietz
egiten du lan handia
Eta orozgain Erroman
onets dezaten anaidia.

92. **Borda**
Hiru urtez herrokan
ibili da han lagunekin,
Mintzaldiak zituela
bai Aita Santuarekin.

93. **Keheila**
Orduan anaidia
date Erromako esku
Guziek ikusten dute
botzik hor aitzinamendu.

94. **Lahargu**
Harremanetan sartu da
gotzain bai kardinalekin;
Gutun anitz igorri die
zer ondorio ez jakin.

95. Hau bai anaidia orain
ezagutua dagola
Eta gure Agostiri
hori oro zor diola.

96. **Borda**
Luze izan bada lana
guzietarat baitu jo,
Gauza ondo urrendu da
uste baino lehen.

Joan

Sar Pio IX, Aita Santua erditik

97. **Pio IX** *mintzo*
Betharrameko ondotik
jin zait grazia bat eske
Agosti Etxekopare
eta bihurt ez naiteke.
98. Hango apaiz santu batek
Erromari atxikia,
Anaidi bar eraiki du,
Hari eman dio bizia.
99. Fraidegoa hori maite dut,
oso hunki dit bihotza;
Egiari lot dakion
egiten dut nik otoitza.

Joan

I4. jelkaldia

*Jelki Gabi, Elisabet, Matilda, Josefina, Jana, Sandrina,
Marion, Magali, ezker gurutzatuz*

100. **Gabi**
Agosti Etxekoparrek
Palestinan, Betlehem, en
Etxe bat eraikigai din;
bihurt gaitezen gu hemen.
101. **Elisabet**
Han Dartigaux andereak
bultzatzen din hori buruz;
Hor diñagu behar ari
zepo tzar batzu hedatuz.
102. **Matilda**
Serora araboak dion
hari zer egin salatzen
Emazte ez jakina dun
baina badakin mintzatzen.
103. **Josefina**
Erromako propagandak
ez din nahi anaidia;
Berberak ikusten diñat
ez din luzazko bizia.
104. Batikanoan hil baita
Pio bederatzigarrena,
Aita santu berria dun
Leon hamahirugarrena

Joan

I5. jalkaldia

Jelki Agosti, Aizager, Etxeberry, Bernadeta, Kattalin, Dartigaux, eskuin

105. **Agosti**
Karmeleko serorak han
Betlehemena dira bizi;
Beren etxen egoitea
zor dute Bracco jaunari.
106. Maria serorak gaitu
han jartera bultzatzen,
Hauen kapilau bezala
ondoan bizi gaitezen.
107. **Bernadeta**
Hau dio serora ttipiak;
“Jainkoak grazia hori
Orain eskentzen dizue.
zuen Aita bat dugu nahi.”
108. **Kattalin**
Tipiak esan du ere:
“Eginik dago zeruan
dudarik bateregabe
gauzatuko da lurrean.”
109. **Dartigaux**
Erroman Batikanoan
mintzatu dut buruz buru
Leon Aita Santu berria
eta serora aipatu.

110. Izan du zeruargia,
Pio hilik aitzinikusi,
Leon izendatua zela
ukan du ere argia.
111. **Agosti**
Harek eman du baimena:
“Propaganda bazterturik,
Izan dadin eraikuntza
nahi dut bihotz barnetik”.

Joan

Kanta

- [1] Beharrezkoa bada,
Lana dugu partida.
Hortarik gira bizi,
Ezin bazter utzi.
Familia bat dugu behar hazi:
Gizonaren legea hori da.

Errepika

- Nere izatea da, egiaz, gogorrena
Besteek baidute beti sailik hoberena.
Hauek gozaten dute opor luzeena
Laborariak, kabalez moinoaturik baditu mozkinak,
Nausi ofizialdunak metatzen ditu puzka handienak.
- [2] Lana, jarririk, zutik,
Ez egiten gogotik.
Hartzaz ez gira ñapur:
Izan bedi labur.
Irabazia, aldiz, ez apur;
Beude bakoitza bere gaintitik.
- [3] Langabea da beltza,
Baitu ondorio gaitza.
Nondik elk jatekoa?
Nondik jantzikoa?
Izan dezagun bizitzekoa.
Saihets, arren, arrenkura latza.

I 6. jelkaldia

Jelki Bouton, Desrue, Girard, Heron eta etsaiak ezker

112. **Bouton**
Errepublikak Frantzian
du ukatzen erlijioa,
Jainkogabeaz dezaten
jada haz beren gogoia.
113. **Desrue**
Beharko dute apaizgaiek,
bertze guziek bezala,
Zerbitzu militar egin,
bai eta onetsi gerla.
114. **Girard**
Agosti Etxekoparrek,
legearen arabera,
Biltzen ditik gazteak,
ikasle Betlehemera.
115. Ikasleak, kapilauak
ditik Betlehem jatrri;
Nik uste gero dukek
Hauendako kaltegarri
116. **Heron**
Hamar urte luze baita
aitetamak dituk gaiztu,
Eta anaiendako duk
anitzez sobera gastu.

Joan

17. jelkaldia

Jelki Agosti, Xamalbide, Iriart, Uhart, Klara, Maite, eskuin

117. **Agosti**
Aita Bourdenek bil dezan
Aita Mixelen bizitza
Orain berri galdegin diot
izango du hor lan gaitza.
118. **Xamalbide**
Zuen buruzagi ona
dudarikgabe santu zen.
Haren mirari anitzak
jendeak ditu aipatzen.
119. **Klara**
Saldo handia otoitzan
hilobian da bildua
Eta oihukatzen dute
Betharrameko santua.
120. **Iriart**
Erroman zinenean zuhaurk
Leon hamahirugarrena
Berbera mintzatu zinuen,
esan nor zen Mixel ona.
121. **Uhart**
Lan harrigarria duzu
Oraino zuk bururatu;
Hogoi mila orrialde,
Baionan, Erroman, bildu.

122. **Maite**

Anitz auziaren alde
Bazterretan bildu duzu;
Mariani abokatuak
Lan hori ederretsi du.

Joan

Kanta

- [1] Sogin mundu zabala gainti,
Jendea anitz edo guti,
Zerbaiten ondoan da beti.
Erreusten da zeren den loti.
Anitzetan da beldurti,
Berainez baita herabezi.
- [2] Egarten duelarik mina,
Gorputzean eritasuna,
Gogoan jazarrezina,
Bizitzea dago iluna,
Luze bai gaua bai eguna,
Eta bidea marraduna.
- [3] Lanapetik jauzten ekia,
Denari sortzen du bizia.
Bihotzean dut iturria,
Eztitzen baitaut egarria.
Ilunpetan banaiz jarria,
Barnean dut biltzen argia.
- [4] Euriak bustatzen du lurra
eta sorrarazten belarra.
Badugu bertzeen beharra.
Harremanetan dugu karra,
Argitzen du, laguntzen haurra,
Indarrez sustatzen zaharra.

18. jelkaldia

Jelki Agosti, Salaberri, Irigarai, Graxiana, Maia, eskuin

123. **Salaberri**
Zer egin baduzu franko,
Luze da buruzagitza;
Kanpoko lanetan ere
ekarten duzu laguntza.
124. **Irigarai**
Eta joan zira ere
anitzetan Erromara,
Berritan Palestinara,
bai behin Ameriketara.
125. **Graxiana**
Igonen diren serorek
hartzen dizute denbora;
Paueko karmeliteri
zoazkie mintzatzeraz.
126. **Maia**
Eta zure etxeoak
kexu daude zuretako,
Ez duzulakotz arterik
hartzen hauen ikusteko.
127. **Agosti**
Gogoz bai eta bihotzez
otoitzan hauekin nago,
Familiari dutan zorra
ez dut aski ordaritutako.

128. Eta hainbertze lan badut!
Jainkoaren eri txikiak
Erakusten dit bidea,
hartzen nau haren nahiak.

Joan

Sataneria

Jelki Satan eta inpiltu zerbutxaria

129. **Inpiltu**

Satan, beti eta beti
zira gaixtakeri bila,
Ezinegonez baitzira
Agosti joko duzula.

130. **Satan**

Haatik ez duk ez erraz
okerrean atzamatea
Eta beti zuzenki dik
betatzen eginbidea.

131. Beraz eman diezaiezun
deneri lillurraldia,
Zoraturik ikus dezaten
egiten dugun jauzia.

Dantza; joan

19. jelkaldia

*Jelki Bordato, Iriart, Dubalde, Goibeneix eta lagunak eskuin;
Jules Ferry ministroa, Bourgerie, Calmet, Lejeune eta etsaiak, ezker.*

132³. Hartu dugu, egun hauetan,
adixkideak, lan gaitza;
Gure kaskek zauriturik
ikara bedi Eliza.

133. **Bordato**
Ez diagu hitzaz beldurrik,
ahal oroz gutuk jauzten;
Lege gaixtoen goitzeko
gutan diagu indar hartzen.

134. **Bourgerie**
Irakasle hoberenak
ditugu igorten kanpo;
Gure aldekoak jarriz,
gal bite zuenak oro.

135. **Iriart**
Agostik ez du beregain
haboro irakaslerik;
Gotzainaren esku ditu
laguntzaile ezarririk.

136. **Calmet**
Anaidiak beharko dik
ordaritu zerga handi;
Orduan ezin eginez
ez daiteke luzaz bizi.

³ Nor mintzo den ez dakigü. (B. Coyos)

137. **Duhalde**

Ez gitik ez gu batere
dirugabeak beldurtzen;
ikasi diagu gaztetik
beharrunean bizitzen.

138. **Lejeune**

Beharko duzue jada
guziek izan ageridun,
Bertzelan ez ziratee
Gehiago irakasdun.

139. **Goiheneix**

Baina badik aspaldi
Agostik irakasgaiak
Igorririk dituela
Bil ditzaten ageriak.

Egin guduak; joan

Kanta

- [1] Besteak daude gu iduri:
Noizean behin dira argi,
Bestean ditugu ilunti.
Gu bezala lurrean bizi,
Nahi gintuke ederretsi
Zeren baititugu gaitzetsi.
- [2] Ikusten ditugu okerrak
Nola gatuena aztaparrak,
Gorderik baituzte ederrak.
Ez ikusiz hauen beharrak,
Itsutzen baigaitu beldurrak,
Bihotzak ditugu gogorak.
- [3] Lur honetan gure bizitza
Gauza anitzetan da gaitza.
Galtzen dugu igukikantza.
Ekarriz algarren laguntza,
Berotzen da gure bihotza.
Goizegi heltzen da goihentza.

20. jelkaldia

Jelki Etxegoin, Keheila, Etxeberri, Oihana, Kattalin, Graxiana, eskuin

140. **Etxegoin**
Berritzapen egiteko
baldinbada anaidian,
Guzietara heltzen da,
orozgain ikastegietan.
141. **Oihana**
Betharrameko kaperan
margoihalen berritzeko,
Bai eta kalbarion
hor dugu gastuendako.
142. **Keheila**
Guzien biziarazteko,
erosi ditu alorrak,
Bai eta ingurunean
etxe, pentze eta lurrak.
143. **Etxeberri**
Baina ordaritzeko badu
ontasun behar gorria
Eta nahasirik dago
bestalde ekonomia.
144. **Kattalin**
Guzietan ekarten du
harrigarriko indarra
Bai eta erakusten du
aurpegi ederra.

145. **Graxiana**

Bere burua beti du
apaltasunez betea,
Eta ez zaio ahalke
han hor argi galtatzea.

Joan

2I. jelkaldia

Jelki Borda, Iriart, Duhalde, Bernadeta, Graxiana, Luziana eskuin

146. **Borda**
Agosti mintzatu baitut,
ulermena du argia
Eta apaiz horrek badu
bai jakitate handia.
147. **Iriart**
Elestatzen da neurriz
badu ere zuhurtasun
Eta iharespenetan
Jainkoarentzat maitasun.
148. **Bernadeta**
Ez dezake ez gorda
bere barneko bihotza,
Jalkitzen bezala zaio
duen enjogidura gaitza.
149. **Luziana**
Botzik da haurren erditan,
jarririk bere ondoan,
Behardunak badu ogi,
eriak ditu gogoan.
150. **Duhalde**
Nekeak baditu nasai,
baina barnean du indar,
Akodiñetan bihoztoi
eta eginetan suhar.

151. **Graxiana**

Eta bere etxeoentzat
izan da beti bihozdu,
Bere bizitza osoa
ikusten du haueri zordun.

152. **Borda**

Zeren eta betidanik
sinestean du argia.
Mixelekin dio: “Hona ni,
egin bekit zuk nahia”.

Joan

22. jelkaldia

*Jelki Agosti etzanik, Paagadoi, Bordaxar,
Madalen eta Marzelina arrebak, eskuin*

153. **Pagadoi**
Aita egon zaite geldi,
nekez hartzen duzu hatsa;
Orainarte zalu zinuen
zure lanetan urratsa.
154. **Agosti**
Handi dut eritasuna,
beti baino gehiago;
Beraz ohartemazue
ez dutala ez luzazko.
155. **Bordaxar**
Gauza guziak dituzu
zinez artoski konpondu,
Azken egun hauetan
lan handi baituzu hartu.
156. **Madalen**
Sakramenduak ukanik
bat zira Pasionean;
Jesusekin bizi zaude;
egon zaiteke bakean.
157. **Agosti**
Eskerrik asko, Madalen,
maite zaituztet guziak;
Lagunt gaitzala betikoz
Jainko Jaunaren nahiak.

158. Oi, zabal, otoi, leihoa,
zerua ikus dezadan,
Jainkoa dago nere zain,
bai hari eskerrak eman.

Sar aingeruak, kanta

159. Jainkoarengatik gira
egun jaitsi zuregana;
Zurekin bizi izan da,
badakizu zoin den ona.
160. Otoizten zenuen anitz
bai zure Eukaristian,
Hari azkarki loturik
igurtzi zuen nekaldian.
161. Zeruan bilduko zira
Maite izan dutuzunekin,
Betiereko bizian
Jesus berpiztuarekin.

Kanta belauniko

162. Jesusekin bat eginik
bai eta Mariarekin,
Bizi gaitezen zeruan
bizi betikoz hauekin.
163. Jainkoaren errukia
baitugu izan bizitzan,
Orain antolatzen digu
hala hala heriotzan.
164. Lur honetan naizalarik,
sinestea dut ilunpean,
Zeruko etxean, laster,
Aita, argi zabalean.

Hil

Azken predikua

165. Entzule maite maiteak,
orain bereztera goatza;
Agertu dizuegu
Etxekoparren bizitza

166. Familia eder batean
Donapaleun sortu zen,
Aita, ama, aurrideak
barnatik maite zituen.


167. Gorputz ederra zuen,
bihotz maitagarria,
Tzut eta begi zorrotza,
ulermen handi argia.

168. Eta apaiztu zelarik
santu bat ezagutu zuen,
San Mixelen anaidian
hura iduri izan zen.

169. Bere bizitza orotan,
egin du lan berezia.
Bere sailari loturik
bizi ledin anaidia.

170. Utzi dizkigu gutunak
eta idazki ederrak,
Aurrideak eta besteak
egin zitezen azkarrak.

-
171. Bere lanak beharturik,
joan zen anitz herrietarat,
Erroma, Palestinarat,
eta Ameriketarat.
172. Eri handi hil zenean,
santu balde hartu zuten,
Eta ez du gorputzean
usteldurarik ez izan.
173. Zuek, behazaile maiteak,
anitz eskertzen zituegu;
Badakigu gure hutsak
dituzuela barkatu.



Junes Casenavek *Xiberoko antzertia edo pastorala* libürüan (2011, Euskaltzaindia, Bilbo: 42-46 or.) egin zütüan marrazkietarik zonbait, tauladan arizaleen mugimentüen erakusteko.

[II]

ATARRATZE PASTORALA



Junes Casenave-Harigile, Txomin Peillen eta Alfontso Irigoienekin
[Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren Artxiboa]

Lehen perediküa

1. Jinik zirae, jente honak,
jakinik heben badela,
Atarratzen, aurten, züer
eskentürük pastoralá.
2. Basabürüan zirae,
hebenko hiri nausia
Atarratze da, prefosta;
hori düzüe ikasia.
3. Arren, hortakoz zor zaio
aipatürük izatea;
bide hoherena dügü
pastoral bat emaita.
4. Arrunt ikusten düzüe
hiria dügüla lüze,
eta orai izena dü
Atarratze Sorolüze.
5. Bena hedatzen da ere
Maidalena gaintialat;
goiko patarrean bada
jelkirik etxe elibat.
6. Bi zübü bada jarririk;
traukatzen düe Ühaitza;
biek, gotor, mozten düe
huraren bultzada gaitza.

7. Larraine Santa Grazirik
mozten dü naba hersia;
heben, aldiz, zabaltzen da,
dirdiratüz hur argia.

8. Atarratzek elkitzen dü
hortik bere izena:
harrizko iragangia,
hau ontsa ageri dena.

9. Ordüan jüntatzen dira
Aloze eta Onize,
hortik Ibar Esküinari
lotürük da Atarratze.

10. Kümitatzen zütüegü
hiriko milaka urte
bizitzera algarreki,
zer izan den mentez mente.

11. Eskentüko deizüegü
hiriaren istoria,
zeren eta, gure ustez,
beita zinez berezia.

12. Züen beitan barna bildürük,
har ezazüe gogoan;
gero züen aldetik
ikus xüxen nola joan.

13. Goza zitee bai egün
artexko bat gurekılan,
trajeria hau beitügü,
botzik emaiten tauletan.

Sataneria

Jelki Satan eta Baratxügaitz mitila

Baratxügaitz

14. Satan, ari zira heben
beti üngürüz üngürü;
zure südürra orotan
nola sar zira haidürü.

Satan

15. Bai eta hi, Baratxügaitz,
horra hiz ene ondotik;
ezinegonareki hiz
zerbaiten egin nahirik.

Baratxügaitz

16. Badakit Atarratze da
egün zure arrenküra;
prest zira horren aitziko
traba baten egitera.

Satan

17. Ez dikek ez ene ustez
aldi hontan ezkapürük;
ordüan egin dezagün
hebentxe bi jauzi botzik.

I. jelkaldia

*Jelki Karrika, Ainez Marmisola, Dürrüti,
Etxeto, Maria Laborda, esküin*

Karrika

18. Ene hiria delakoz,
gozaten niz Atarratzen;
zinez eder ikusten dü,
laket niz heben bizitzen.

Ainez Marmisola

19. Peko etxetarik gora,
badira etxalte onak,
geinatzen da behi, ardi,
ezneaz egiten gaznak.

Dürrüti

20. Han gainti da Maidalena,
hunkitzen dütü Zalgize,
Sohüta eta Iruri,
eta handizki Barkoxe.

Etxeto

21. Jokatzen dü Gaztelondo
Sustarri lepo zabalak;
Erretzüko mendiak
Montori bazter hegalak.

Maria Laborda

22. Karrika margo hanixez
distira da apaintürik,
eliza bere osoan,
Maidalena berritürik.

Oro joan

Kanta *Gure erreka*

Errepika

Gure erreka, Ühaitza,
Mendiartetan da gaitza,
Heben eztitzen dü botza,
Gorago ützi dü dantza,
Hurak xotil beitabiltza.

Gaintitzen balinbada negüan
Mehatxatüz soroak, kantüan,
Üdan sartüz bazter mügatüan,
Leinki ari da gure bürüan.

Hurak ez dira haboro zikin,
Bena jauziz jauzi dira urdin;
Agertzen zaizgü argizko ühin,
Üharriak distiratsü bardin.

2. jelkaldia

*Jelki Karrika, Oihenart, Tantotxe,
Xaxi Etxekopar, esküin*

Karrika

23. Bildü gira algarreki,
hau da hiriko gorena;
tini hontan dügü üken
eraikirik Maidereana.

Oihenart

24. Ahüzki aldepean da
Azalegiko karpea,
Altzaiko aldegainan
ere Maiderkoralea.

Tantotxe

25. Bai Eüskal Herria gainti
eta gure Xiberoan,
Mari gure ama dügü,
bizi, ororen gogoan.

Xaxi Etxekopar

26. Gaine hontara bildü eta
zoin goxo den egoitea;
zelüa da argiago,
bai lüto üngürünea.
27. Zoin zabal den ikusmena,
ezinago xoragarri;
zolan: oihan, bazkagia,
han bortüak miragarri.

Karrika

28. Bazakien bai bizitzen
gure aitzinekoek;
haien ondotik ürratsak
ezar ditzagün oroek.

Oro joan

3. jelkaldia

*Jelki Libus Lukulus, Numa Marzius,
Metelus Nizus, Balerius Kornelius, exker*

Libus Lukulus

29. Eüskal Herrian sartürük,
bizi gütüük Xiberoan,
borroka bazter ütziük,
algarrekilan goxoan.

Numa Marzius

30. Izan beita eüskaldünen
ezin goitüan Erruma,
horiek honartzen düe
hein bat gure erresuma.

Metelus Nizus

31. Arren heben bizi gütüük,
prefosta arrotz bezala,
bena harreman honeki;
hobe izan dadin hola.

Balerius Kornelius

32. Gük Erromatarrek heben
baditiagü hontarzünak;
hebenkoek baditüe
ere irabazi honak.
33. Ikusten diat ez dela
bakoitxik ere galtzetan;
eüskaldünak dütüük azkar,
gü irus haüen erditan.

Oro joan. Satanak dantza

4. jelkaldia

*Jelki Karrika, Gaius Balerius Balerianus,
Gorripe, Gorriborda, eskiün*

Karrika

34. Adiskideak, güne hau
hiriko aspaldikoa,
nahi günüke eraiki
oritarri betikoa.

Gaius Balerius Balerianus

35. Hebenko herritarra niz,
etxaltea düt Gorritxe;
baliatzen düt onsatto
errautsgorri beita hantxe.

Gorripe

36. Gük zure ber lana dügü,
zü zütügü bürüzagi;
taigabe ari gütüzü,
sekülan ez beita aski.

Gaius Balerius Balerianus

37. Ttipiña, lürrezko untzi,
hanitx behar da hebenko,
Erruman beti haboro
jauntsi, oihal gorritzeko.
Gorriborda
38. Hanbat hobe guretako,
hor dügü irabazia;
zuri esker dizügü bai
gük goxoago bizia.

39. Ene bizkar hartüko düt
harriaren goititzea;
horren egongia dateke
Maidereneko günea.

Kanta Gorünea

Errepika

Lanoen erditik da jeiki zohardia,
Ondotik berehala agertü ekia.
Bortüko bidean düt ürratsen lehia.
Urdintü da gorago botxüko harria
Eta margoz apaintü soroko lilia,
Bihotzaren sü pizle egünko argia.

Zeiharka hartüz papatsa,
Hantüz bularreko hatsa,
Zaletüz ere ürratsa,
Baztertüz mündüko otsa,
Ützi düt bizitze hitsa,
Amestü bai aberatsa.

Borogatüz hüts azkarra,
Badügü argi beharra;
Jokatüz bortü bazterra,
Bil genezake indarra,
Ontsä bizitzeko garra,
Nola ortziko izarra.

Sataneria

Jelki Satan eta Baratxügaitz mitila

Satan

40. Dagoberrek igorri dik
Frankoen armada gaitza,
ezarri dik horren nausi
Arinberte, gizon latza.

Baratxügaitz

41. Gibeletik izan zira
zühaur haren haxizale;
ez dezakezü egari
Xiberoko bizizale.

Satan

42. Hihaurk ere behar hüke
zotükatü haboroixe,
eta gainti güzietan
bazterrak bai nahasixe.

Dantza, joan

5. jelkaldia

*Jelki Karrika, Xabalgoiti, Elgoiben eta lagünak esküin;
Arinberte jenerala, Dunoyer, Boulanger eta etsaiak exker*

Arinberte

- 43 Izanen zirae bertan
gure armadak goitüak,
tzakürren bazka eginik
bai, barbalot eihartüak.

Karrika

- 44 Badütüzüe indarrak,
hoinetako bai zaldizko,
bena hebenko bortüak
dirate galkor züentako.

Dunoyer

- 45 Hürüntik jinik bagira,
ez gitzala ez gütiets,
zeren lehertü beitügü
bide hontan herri hanitx.

Xabalgoiti

- 46 Üken dik gure herriak
ordü gaixtorik askitan
eta besteak bezala
joko zütüegü bertan.

Boulanger

- 47 Giza txar hau diagü egün
beterik hebentxe hühüz;
bena badakika ontsa
zer egin Frankoer bürtüz!

Elgoihen

- 48 Gain hortan ikusiren dük
pe hontan ez balinbada;
han züek eta zaldiek
dükezüe gaitz johada.

Karrika

- 49 Gainti orotarat jo bai
herritar lotsagabeak;
eho itzatzüe denak,
bürüazpiz hain beteak.

*Güdüka. Arinberte eta beste zonbait bil, besteak ibes joan
eta lağün bat zauritü. Lebenak ziloalat urtuk.*

6. jelkaldia

*Jelki Jenofa, Eder, Oihan, Pantxika, Katixa,
Irene, Amaia, gorriak, exker*

Jenofa

- 50 Abd-el-Rahman eta gero
Karlos handia goitürrik,
botzik ziren Xiberoan,
bena apür baten baizik.

Eder

- 51 Frankoak, indar gaitzean,
jaitxi dütün haiengana;
Nafarroko nausi Santxo
jarri düe den apalena.

Oihana

- 52 Semeak eho ditiñe,
Semen Otso bai Garzia;
eta zale hedatü dün
bazter orotan berria.

Pantxika

- 53 Iparreko Viking basak
Frankoek igorri deitze,
erre eta ebatsi düe,
pikarraitü Atarratze.

Oro joan. Satanak dantza

7. jalkaldia

*Jelki Karrika, Eduard printzea,
Gillen-Ailande Xiberoko nausia, esküin*

Karrika

- 54 Eduard, botzik gütüzü
gure Basabürüko lürretan
ez beita nausi de Montfort;
bena zü gure honetan

Eduard printzea

- 55 Inglaterrako erregek,
aitak, naü heben ezarri;
nahi nüke Atarratzen
bake goxoena jarri.
- 56 Hortakoz, Gillen-Ailande,
izentatzen zütüt egün,
zaint ezazü Xiberoa,
ni nükezü zure lagün.

Gillen-Ailande

- 57 Joan bite sentoralzale
Gillen-Ailande Ziboze,
baita adixkide düdan
Beltran Ühart Atarratze.

Eduard

- 58 Behar da berantügabe
eraiki Gaztelüzahar;
jakin dezaen bai güziek,
herri honek badü indar.

Oro joan

Kanta *Güzientako ekia*

Errepika

Güzientako ekia argi
Eta zelüa urdin.
Lürrak dener emaiten dü bizi,
Hazkürrü eta mozkin.
Bakoitxari ekar bezao honki,
Bizitzekoa bardin.

Bazterretan, bada, egün,
Ügari sortzen hontarzün,
Güneka aberastarzün,
Haratago apürtarzün.
Ahalak egin ditzagün
Izateko algar lagün.

Gizartean den handia
Izan nahi da nausia;
Badü nasai janaria,
Ederrena egongia,
Eta biltzeko güzia
Izarigabeko lehia.

Bürü hantü da azkarra,
Gerriko beitü indarra,
Asma dezake lan tzarra,
Baztert besteen beharra,
Orotan barreia herra,
Süsta ere bai okerra.

8. jelkaldia

*Jelki Karrika, Elizagarai, Aran, Ürrüxtola,
Luisa Kopen, Jana Aretx, eskiün*

Elizagarai

- 59 Eüskal Herrian bezala,
Xiberoan inglesak nausi;
haatik ontsa jiten dira
gure Nafarroareki.

Karrika

- 60 Bai bena Basabürüan
badira Bahamontesak,
bestalde häien etsaiak
dirade Agramontesak.

Ürrüxtola

- 61 Batek eta besteek
egiten dütüe itxesak,
ehaite, ebaskeria,
orotan sühaka latzak.

Luisa Kopen

- 62 Bakearen otoizgia
Karlos gorak dü eraiki
Müsküldiko gorenean,
patrua da San Antoni.

Jana Aretx

- 63 Han ziren Agramonteko
Ailande Erramun Jauna,
Atarratze hiritik
Ailande Zantxo zaldüna.

Aran

- 64 Ez dizü ez iraün bakeak
Nafarroan ez heben,
zeren eta nahasketak
arraberriz sortü diren.

Elizagarai

- 65 Zentü da Karlos errege
Nafarroan nor izenta?
Bahamontes nahi düe
Biarnoko printzea, prefosta.

Aran

- 66 Ordüan Agramontesek
Johane Aragoineko
Blanka primaren senarra;
Blanka beita ondoreko.

Sar Margarita Ezpeldoi; mintza

- 67 Hona, züengana jin nüzü
lotsak irautzirik oso,
Larraineko Berterretxe
etxe kantüan düe eho.
- 68 Zer izan den abrekeria
ez dezaket nola aipa,
korpítza oro odoltsü,
han lür hezearen bazka.

Karrika

- 69 Uste dit ez dela hortan
brehala ürrentüko,
Agramontesek beitüe
mendekio tzar piztüko.

Oro joan

9. jelkaldia

*Jelki Jana Albret Nafarroako erregiña, Gerantina Petrops,
Eneko Ezponda, Johane Etxart, Jakes Büztanobi,
Grazian Karrikondo, exker*

Jana Albret

- 70 Higanaut adixkideak;
heben gira algarreki,
zeren eta jaun zonbaitek
ezin gütüe ikusi.
- 71 Atarratzeko Johanek,
hebenko gobernadorek
zonbait bahi etxeki zütüe,
hortaratürük inglessek.

Gerantina Petrops

- 72 Arrunt ihes egin dügü,
ahal bezala bai bizi,
gorderik, hola dizügü
gure fedea etxeki.

Johane Etxart

- 73 Etsai haüetarik bata
düzü Ezpeizeko Jana,
bere gizon haütüeki
gure bila badoana.

Grazian Karrikondo

- 74 Orotan izan gütüzü
behar ere algar lagün;
hortakoz gütüzü heben
algarren süstengü egün.

Eneko Ezponda

- 75 Erregiña, hartü naüzü
bai zük zure aholkari;
banoa Kalvinengana;
behar düt nik hanitx ikasi.

Jakes Büztanobi

- 76 Johane Etxart, Santz Tartas,
Landetxeberri eta ni
Teologia ikastera,
jiten gütüzü zureki.

Oro joan

10. jelkaldia

*Jelki Xarles Lüküze, Domintxaine, Terride, Menaud Arrentx
eta lagünak, esküin. Montgomery kuntea, Bernard d'Arros,
Eneko Ezponda, Belzunze higenautak eta etsaiak, exker*

Montgomery

- 77 Hüilant, Xiberoko ezdeüsak,
nik zütüet üskailiko;
sü handi baten erditan
zütüet tzokarraziko.

Xarles Lüküze

- 78 Ago ixilik apür bat
hi nork jakin nontik jinik;
jakin ezak Xiberoan
goitü dügüla besterik.

Bernard d'Arros

- 79 Ez ahatz züen erresuma
düzüela Nafarroa;
Jana Albretek dik heben
ere bere nausigoa.

Domintxaine

- 80 Hik erre deizgük elizak,
arren, nausigoa tzarra;
Albertek beiteik manatü
piztü dik bai gure herra.

Eneko Ezponda

- 81 Higanaut izan ziteen
ari dük erregiña;
eta prefosta zühauek
har ezazüe züen gaina.

Terride

- 82 Nik, badakiat, Montgommerry,
zer egin düian Ortezen;
hire ehokak berritü
nahi dütüük Atarratzen.

Menard Arrentx

- 83 Gure sinesdün lagünak
han eho dutük milaka;
eta zübütik urtuki
apez, fraideak saldoka.

Belzunze

- 84 Ihes joan dük Biarnorat
Beronzeko jentea,
egin düztüe ebaska,
partekatü kabalea.

Xarles Lüküze

- 85 Ene adixkide gaitzak,
egin dezagün borrraka
eta etsai tzar hoik oro
ditzagün arrunt porroka.

Egin güdüka; hilak eta zauriak bietan

I I. jelkaldia

*Jelki Karrika, Xarles Lüküze, Maria Jaurgain,
Johane Lüküze Xarlesen aita, Isabeau ama,
Jana Jaurgain Mariaren ama, Marti Ürrütigoiti Jaurgain aita,
aurrideak, Don Tristan Lüküze Santa Graziko apata, Xarlesen anaia, esküin*

Karrika

- 86 Zük eraiki Gaztelügain
güziek dezakee ikus;
biak hebentik aitzina
han biziko zirae irus.

Johane Lüküze

- 87 Maria, ützi badüzü
Ozazeko Jaurgainea,
orai, heben, Atarratzen,
date zure bizitzea.

Jana Jaurgain

- 88 Gaizteini zira, Maria,
bena ez üken lotsarik;
Xarlesek zaintüko zütü,
ez dizü ez indar mentsik.

Tristan Lüküze abata

- 89 Orai düzüe, hebentxe
sakramentüa hartüko;
izan bedi züen baimena
bien bizi orotako.

Sar aingüriak; kanta

- 90 Eder da Atarratze hontan
egin düzïen ürratsa;
handi ere izan bedi
züen bien egürükantxa.
- 91 Egün bi jauregi azkar
dira algarretaratü,
eta zorbatez haboro,
bi bihotz beitira batü.
- 92 Distiratsü izan bedi
orai bien boztarioa
eta bizitze güzian
maitatsü ere geroa.

12. jelkaldia

*Jelki Karrika, Ailande de Peyrer, Petiri de Conget,
François Henri de Montmorency, Luis XIV. Esküin*

Karrika

- 93 Luis Hamahirugerrenak
izentatürik kapitain,
izan zirade Parisen
haren arkabosdünen zain.

Ailande de Peyrer

- 94 Bai, bena harrotarzüna
ezarten dit Atarratzen,
zeren Gorritepeak näi
Aitonen seme egiten.

Pierre de Conget

- 95 Badakizüe, Atarratzen,
Barkoxen, ni niz epaile,
eta, arren, hala dela
ni nüzü heben jakile.

François Henri de Montmorency

- 96 Atarratzeko barrua
nündüzün oraiartino;
hitzeman neizün bezala
izan zite nausi oso.

Luis XIV.

- 97 Atarratzen izanen da
jagoitik auzitegia,
eta zure eskü ere
uzten dit apeztegia.

Oro joan

I3. jelkaldia

Jelki Karrika, Ailande Ager,

Ailande Frantses Maiti, apezküüa, Aina Eskanda, esküin

Karrika

- 98 Troivilles, Toulangeon kunteek
ezarri dütie legarrak;
jada hebenkoentakako
lehergarri dira zorrak.
- 99 Eta Beinat Goihenetxek
Mitikileko apezak
zinbidatetan erran dü
ez ordaritez zor pezak.

Ailande Ager

- 100 Matalas horren gizonek
ene Gaztelüzaharra
düe bizilekü bezala;
harrigarriko indarra.

Aina Eskanda

- 101 Bordelerik jin dirade
zaldizkoak ehünaka;
eta jada badiagü
gure herrian ehoka.

Ailande Frantses Maiti

- 102 Baziren Donapaleun
hebenko giltzapetüak;
ahalak egin beitütüt
jinik dira, libratüak.

- 103 Jakes Bützanobi züan
Matalasek urtukiko
Mauleko zübü goratik;
eginarazi diot üko.

Graxiana Bagaula, *sar taula zolatik*

- 104 Sohütan düe zaldizkoek
gure Matalas bahitü;
Lexarreko ilerritan
Dioe bürüa moztü.

Oro joan

I4. jelkaldia

Jelki Karrika, Froidur, Xabalgoiti, esküin

Karrika

- 105 Frantzia zolatik jinik,
zer diozü, arren, gützaz,
gure herriez, bazterrez,
gure Basabürü hontzaz.

Froidur

- 106 Ikusten zütüet harro,
jauntsi ederreki, ixil;
emazteak alagera,
eta lanealako zail.
- 107 Etxalteak dira eder,
jabeak horien nausi;
etxe eta bordak harriz,
bai lürretik oro bizi.
- 108 Larrainen bago ederrak,
Santa Grazin bago, izei;
etxalteen üngürüan
txüt harixtoi, gaztainaztoi.

Xabalgoiti

- 109 Abere larri, xeheak
baditizügü ügari,
ardi ezne eta gazna,
xerri gizenen urdazpi.

Sar artzainak ardieki.

Kanta *Jinik delarik*

Errepika

Jinik delarik egün berria,
Arrunt bazter ützerik antsia,
Güziak ditean boztaria,
Margoz apaintürrik da lilia,
Orotan jelkitzen da bizia,
Gora zorihonaren lehia.

Zelügain lüzea gainti zoan argizagia,
Izarrez beterik beitzen, xoratzen zen begia,
Oroek gozatzen züen aidehegoa ezta,
Gaüa hotsik gabe beitzen, ixil zen beharria,
Ardiek titilakatzen züen olako etzangia,
Atzean zurrunkan ari, lo zen haüen nausia.

Hona goizean goizik, piztü da azkorria,
Bertanxko ere ondotik agertü da ekia,
Barreatüz gaingainean zelüko zohardia,
Hedatzen dü bazterretan itzal eta argia,
Ari da ere kukuxkan, jauziz bortü tinia,
Oraiartino da gora, han beitü egongia.

Ekiareki batean, jente eta aberria
Abiatzen da goxoan, xütik, iratzarria,
Txiuntaz dago adarrean, alagera, txoria,
Bildürrik saldoan, alan, gora doa ardia,
Esnaurtüz, bere ahoan, etzanik da behia,
Belarra moztüz kurruskan, lerden doa zaldia.

Joan

I5. jalkaldia

*Jelki Katixa, Irene, Lorea, Amaia, Jenofa, Eder,
Oihana, Pantxika, gorriak, exker*

Katixa

- 110 Eüskal Herri harroa
dün orai ezabatüa,
Biarnoki egiten beitü
berber departamentüa.

Irene

- 111 Eta Parisek jarri din
apezen legenausia;
kanbiatzen din bai horrek
horien lana, bizia.

Lorea

- 112 Galdü dün Jüje Latxaga,
jakin diñat, Atarratzen;
meza, ixilka, gorderik,
Ordontxean din emaiten.

Amaia

- 113 Astüeko Bizkai diñe
erretor izentatürük;
hau Beinat Iriartek dün,
bikario, lagüntürük.

Jenofa

- 114 Hots! Badün bi apez kente,
gainti bat zin emaileak,
eta beste bat, hanixko,
zinaren ükazaleak.

Eder

- 115 Atarratzen hedatzen dün
jenteetan berezkeria;
sartü dün ere herrian
aüzoen salakeria.

Oihana

- 116 Ez diñe haboro haizü
algarrekilan biltzea
eta debetatü dieine
pastoralen emaita.

Oro joan

I 6. jelkaldia

*Jelki Karrika, Grazi Bordaxar, Dagerre, Elgoiben,
Margarita Errezarret, Ezpel, Pordoi, Julia Kürütxaga, esküin*

Karrika

- 117 Atarratzeko seme da
Harrixabalet apeza
Santa Grazin bai Larrainen
Badü, segür, aipü gaitza.

Grazi Bordaxar

- 118 Junes Exker erretora
hil berri da Santa Grazin,
jarri düe Harrixabalet
ordari behin behin.

Margarita Errezarret

- 119 Hankotürük aspaldian
Iraultza denboradanik,
apez zentzüdüna beita,
herritarrak dira botzik.

Dagerre

- 120 Gizona azkarra dün,
eta ere zoin ederra,
mezan kantatzen düalarik
prefazioa eta paterra.

Julia Kürütxaga

- 121 Zoaza apeztegiala,
han badükezü gaihaje,
Erronkarriko ardu hon,
jateko oilaxko erre.

Elgoihen

- 122 Ikasgeiak egin dütü
Oloron, seminarioan,
eta han bazizün beti
zerbait txaskoini abioan.

Ezpel

- 123 Iraultza denboran ere
ari izan da ündülgüz,
zin xuria egin dizü,
Elizari leial lotüz.

Pordoi

- 124 Kuntrebanda handi bat,
hau apezak asmatürrik
hil balde ekarri düe
hilkützan sarrarazirik.

Oro joan

Sataneria

Jelki Satan eta Baratxügaitz mitila

Satan

- 125 Baratxügaitz maitea,
badiat egün boztario,
Frantzia Espainareki
da güdükara abio.

Baratxügaitz

- 126 Frantziako soldadoak
beitirade nekez bizi,
Xiberoko etxalteek
behar düe eman hazkürri.

Satan

- 127 Hanbat hobe haiüentako;
goxoki zütüian herrian;
orai jakin bezae zer den
bizitzen nekezian.

Baratxügaitz

- 128 Üngürüko horiek
dizagüen ontsa sogin,
nola hola dagolarik
dütügün zankoak arin.

Dantza; joan

I 6. jelkaldia

*Jelki Mardot jenerala, Roucher jenerala, Junker eta Morand lagüntzaleak,
Irigoien kapitaina, Jan-Pierra d'Aranpe batailu bürüzagi eta lagünak esküin.
Manuel Cagigal, Isidro Zerezeda, Ossuna düka armadako bürüzagiak eta etsaiak exker*

Mardot

- 129 Hüilant, ezdeüs eihartüak,
nik zütüet porrokiko;
lürrean tzüstatü atzin
saek zütie klikatüko.

Manuel Cagigal

- 130 Güdalozte indartsü bat
düt menpeko Otsagian;
orai berantesten zaigü
züek mazitü nahian.

Roucher

- 131 Badiagü ahal gaitza,
armaz künküino beitügü;
Larrainen bürdüin oletan
oro eginik ditiagü.

Isidro Zerezeda

- 132 Gük ere baditiagü
Orbaizetako oletan;
aisa gütük zotükatzen
bazter hoietan orotan.

J.P. d'Aranpe

- 133 Ontsa jarririk zineen
Larrainen bai Santa Grazin;
han eneek aizatürük,
laster düzüe ihes egin.

Ossuna düka

- 134 Orit hadi zer izan zen
Ibainetan heben gainti;
izan güntüan ordüan
Karlos Handiaren nausi.

Mardo

- 135 Azkarki jo ezazüe,
haurrak, esküin eta exker,
eta harro izan, arren,
ehoko dütüzüen ber.

Güdüka; bil bedera; etsaiak ihes joan

J.P. d'Aranpe mintza

- 136 Güdüka hau ürrentürrik
Nabarkoxerat banoa;
gora hain maite zütüdan
laugerren batailua.

Oro joan

Kanta *Lür hontan*

Lür hontan bizi da jentea.
Ezbardin badago kentea,
Gizona ala emaztea,
Berezi ere izatea,
Sogin haren egitea.
Bürüan horren ükeitea
Da zorihonaren hastea.

Gure hebenko bizitzean,
Egünak doatza ixustean.
Izan bite denak bakean,
Prefosta algar lagüntzean,
Bizitüz maitarzünean,
Ele tzorrotzak baztertzean
Eta goxoki mintzatzean,
Oro egariz bihotzean.

Zertako izan hügügarri,
Gure eginetan bühürri
Eta mintzoan mardakari,
Besteak hartüz gütiesgarri!
Hurak dirade gü üdüri.
Ezar üngürüan lokarri,
Egin güzier batzarri,
Üken ditzagün maitagarri.

17. jelkaldia

*Jelki Karrika, Agosti Xabo, Kihilliri, Klemente d'Andürain,
de Belzunze bikontea, Anttoni d'Abbadie, esküin*

Karrika

- 137 Heben gütüzü bildürük
behinkoz algarrekilan;
Atarratze düzü maite
Bestetan eginik ere lan.

Xaho

- 138 Bai ez dezaket ez ahatz
Atarratze sorleküa;
nonahi izanik ere
heben dit beti bürüa.

Kihilliri

- 139 Erakusten düzü ere
zoinbeste etxekirik ziren
Eüskal Herri osoari,
beti beitüzü aipatzen.

Xaho

- 140 Ikusi dit Nafarroan
pizten Zumalakarregi
eta zoin gizon gaitza den
armadaren bürüzagi.
Klemente d'Andürain

- 141 Politikan ari zira
Eüskal Herriaren maitez,
heben eta Baionan
botz gehienak ükeitez.

Xaho

- 142 Ene egitekoa da
aurrideen gidatzea,
argi, libertatearen
bidean haüen sartzea.

Kanta

Askitan indarririk gabe bizi da jentea
 Bihozterritürik dago ülündüräz betea.
 Hon lüke besteekilan bi hitzen erraitea
 Eta haüekilan ere harreman ükeitea.
 Uste dü hobe düala ixilik egoitea:
 Hori da bere beitarı min handı egitea.

Karats bada edaria, ezarten da ezta.
 Bihotz minari eleak ekarten dü bizia,
 Norbaiten ahülezia balin bada handia.
 Algarreki bizitzeak egiten dü herria.
 Bakoitxak üken dezala harentako benia.
 Gogo bihotzean date distiratsü argia.

De Belzunze bikontea

- 143 Parisen egin zirade
 filosofian jakintsü;
 han zünüan Charles Noyer
 zure irakasle bürü.

Xaho

- 144 Nik diot Eüskaldünak ziren
 herri ezinago eder,
 egüneko izarbeltza
 lotzera doan bezala.
- 145 Üholdea jin zenean
 mendietarat joan ziren,
 berak baizik ez nausitüz
 mintzo, gizarte, ohidüren.

Anttoni d'Abaddie

- 146 Botzik nüzü zurekılan
lan egin beität eüskaraz,
aipü hanixko eginez
gurea den mintzajeaz.

Xaro

- 147 Murduila ülün ülüna da
herri arrotzen mintzoa,
gurea beita azali,
hitz oro egia beroa.

d'Abaddie

- 148 Miarritze ospatü düzü
itsas mendien artean,
Eüskal hiri berezia,
Distirant hur bazterrean.

Xaro

- 149 Orai berri abiatü dit
egiaz lan handi handia:
eüskara, frantses bai lati
eta espainul hiztegia.

Karrika

- 150 Atarraztar herritarrak
harro gütüzü gü heben,
gure herri, izatea
ezarten dütüzü lehen.

Oro joan

18. jelkaldia

*Jelki Karrika, Louis-Lucien Bonaparte printzea,
Inchauspe kalonjea, Anttoni d'Abaddie, Daranpe aüzapeza,
Dagerre saleroslea, esküin*

Karrika

- 151 Jaun Printzea, Xiberoa
düzü handizki onesten,
gure mintzoa beitüzü
ikasi eta barnatzen.

A. d'Abaddie

- 152 Inglaterran biltzen ginen,
han lotürik eüskarari:
abiatü düzün lana
da egiaz harrigarri.

L.-L. Bonaparte

- 153 Mintzaje berezia da
eta ere zoin zaharra!
Inchauspe kalonjeak deit
hortzaz egin lan ederra.

Inchauspe

- 154 Haurtzarotik ikasi dit:
ez dit ez, arren, hartzerik;
jauna, zü zirela medio
da lan hori agertürik.

Dagerre

- 155 Algarreki izan gira
Otsagia herriala;
ikusi düzü bidea
Larrainerat gaitz dela.

Daranpe

- 156 Hon baten herexatzea
deigüzü, arren, hitzeman;
gainti hortan badizügü
beti hanitx harreman.

L.-L. Bonaparte

- 157 Eman düzüe pastoral bat,
Nabukodonozor, atzo;
aberastarzün handi bat
düzüe hori geroko.

Oro joan

Kanta Sümurgile jeiki

Sümurgile jeiki da hegoa,
Ekiak berotzen dü aroa,
Hüxtülotsez ari da xoxoa,
Belarrak mardultzen dü soroa,
Liliak argitzen dü margoa.

Orotan ezagün da mintzoa,
Gurea dena aspaldikoa.
Aranatzen beitü Xiberoa,
Xorätzen dü beti haurtzaroa;
Künkümiño betätzen gogoa.

Hitz batek har baleza okerra,
Ekarten lezake omen tzarra.
Sortüz güzien artean herra,
Eta piztüz orotan aharra,
Balüke ehaiteko indarra.

Elegabe ülün da bihotza,
Eta jiten delarik goiza,
Algarreki gitean mintza.
Egüna izan leiteke latza
Ez entzütean norbaiten botza.

I 9. jelkaldia

*Jelki Karrika, Ühart kalonjea, Jan-Batixta Foix,
Aimée Dürrüti, Jan-Batixta Daranpe aüzapeza,
Ossiniri, Sainte Famille serora*

Karrika

- 158 Jaun erretora, lan hanitx
egin düzü herri hontan,
badükee arrakasta
bai basabürü orotan.

Ühart

- 159 Arrenküra handiena
badit beti gazteriaz,
Salbatoreko eskolak
Dezala heben altxaraz.

J-B. Foix

- 160 Atarratzen maite dügü
pastoralen emaita;
botzik nüzü gazteriak
hor beitü nahiküntea.
- 161 Badizügü Atarratzen
hortan bultzazale honik,
bereziki Saffores;
nihaur, lanaren erditik.

Aimée Dürrüti

- 162 Gure herriko eliza
xütik da ene lürretan
eta Laborde, Mirazou
andereek emanetan.

J.-B. Daranpe

- 163 Apaintü zeion barnea
Azema erretor zenak;
maiaštürü, bere esküz
lantü beitzütüan denak.
- 164 Egin düzü lan ederrik
züik karrikako elizan,
bai eta handiarazi
txapela, han, Maidalenen.

Ühart

- 165 Bestalde nahi üken dit
ospitale bat eraiki
artatürük izan dadin
heben xahar eta eri.

Ossiniri

- 166 Nik, hortarako deizüt
etxe bat eman hasteko;
jadanik badüzü jinik
serora zonbait laneko.

Sainte Famille

- 167 Behardün horientako
biltzeko jauntsi, janari,
gü serora güziak
bagoatzü herriz herri.

Oro joan

20. jelkaldia

*Jelki Karrika, Zule, Albert Konstantin sendagilea,
Pierra Llande jesuita, Elgabarne Santa Graziko aüzapeza,
Sagaspe, Etxalüz, esküin*

Zule

168 Lombardi zurtegia zen
jarri nik eman lürretan;
heben oro ützi eta
da Arudyko herrian.

169 Basabürüko gaintean
ekarri dü bizia;
gure herri horietan
dügü orai ments handia.

Karrika

170 Badügü bi ehüntegi,
bat heben Konstantinena,
eta beste bat aüzoan,
hots Ligin, Jauregiena.

Albert Konstantin

171 Jauregian egin dügü
aüzetxea Atarratzen;
hebentik harat hobeki
dizügü lan eginen.

Sagaspe

172 Eta nahi üken düzü
hor izan ledin eskola,
bai eta kantü kantüan
pelotakagi zabala.

Etxalüz

- 173 Gaztaina intzaurtzeak
ari zizgüzün eihartzen;
zuri esker japoniatik
jinak dütügü lantatzen.

Elgabarne

- 174 Ezinagoko lagüngo
ekarri düzü orotan,
ehiki ebilten gira
zük bultzatü bideetan.

Pierra Llande

- 175 Nik erran dezakezüet
lan egiten dü eüskaraz,
ari dadila sail hortan
bai lüzaz eta lüzaz.

A. Konstantin

- 176 Zük düzü bai lan egin:
eleberri, historia,
eta abiatü düzü
frantses eüskal hiztegia.

Oro joan

2I. jelkaldia

*Jelki Karrika, Jauregi, Laurentx Hastoi, Dominika Hastoi,
Ximun Hastoi, Beinat Hastoi, Ürrüxtoi, Pitrau, esküin*

Jauregi

- 177 Atarratze geroalat
so beita beti bezala,
hona kolejio eder bat
heben eraiki dügüla.

Karrika

- 178 Geroa zünüan gogoan
memento gogorrenetan,
Alemanak zirelarik
nausi Basabürü hontan.

Laurentx

- 179 Mendikotarik jinik,
“ari dik behar” bai beti,
nik saldüz ardu, irin,
abereen janari.

Dominika

- 180 Etxegintzari lotü nüz
eta gero herrilaner,
ostatü bat ere hartü
deitü beitüt Bixta Eder.

Ximun

- 181 Drogategi bat jeiki dit,
bilatü nüz margolari;
Pieilanea jatetxea
Karrikan nik nizün jarri.

Beinat

- 182 Hebentik Baionartino
otobüs bat dit plantatü;
Baratzegi ostatüa
karrika erditan sortü.

Ürrüxtoi

- 183 Beguerie Jaunari esker
Atarratze bazterretan,
Baditizügü bideak,
Beharrezkoak lanetan.

Pitrau

- 184 Lühikara jin delarik
galtegin dit lagüngo;
harrigarri düzü nola
piztü den adixkidegoa.

Oro joan

22. jelkaldia

Jelki Karrika, Albert Konstantin sendagilea eta beste zombait, esküin

Konstantin

- 185 Eritü beitzirade
ekarrarazi naizü;
jenteen osogarria
ene lehen lana düzü

Karrika

- 186 Eskertzen zütüt, bai, jauna,
nitzaz arrenküratüririk;
dakizün bezala ,orai
nüzü zahar okitüririk.

Sar aingürüak, kanta

- 187 Jinkoak igorten gütü
mezülari zuregana;
ikusi dizü zelütik
zük herrian egin lana.
- 188 Hona, arren, zuretako
jinik da goihentza;
Jesüsek emaiten deizü
betiereko egoitza.
- 189 Ardu hona egiten da
brentsan tinkatüz mahatsa;
zük goza bizi berria
emaitean azken hatsa.

Karrika, belariko kanta

190 Mündü hontan nausitzen da
orotan aisa ülüna;
egürükantxari lotürük
bertan jiten da egüna.

191 Jesús, gure maitarzünez
hartü düzü heriotzea;
sinesten dit piztü zirela
ekarteko bizitzea.

192 Zure eskü zabaletan
üzten dit ene bizia,
zurekılan ükeiteko
ene izate berria.

Hil, eraman

Azken perediküa

- 193 Jente honak, entzün düzüe
Atarratzeko istoria;
bihotz barnean günüan
züer agertzeko nahia
- 194 Hartze züan, uste dügü
hebenko herri nausiak
pastoralak eman litzan
aitzineko berriak.
- 195 Bihotx tximiko handi bat
üken dügü hona jiteko,
gure ahal ttipieki
züen aitzinean agertzeko.
- 196 Jarraiki dütüzüe
erneki gure ürratsak;
badakigü parkatüko
deizgüzüela gure hütsak.
- 197 Bena jakin ezazüe
agertü girela botzik,
guregana jiteko
züen lehia ikusirik.
- 198 Eüskara zaharra dügü
egün züeki erabili;
gure bizitze orotan
karrikan dadila bizi.

- 199 Nahi günüke halere
hau abio bat izan dadin,
harremanak ditzagün
beti azkarrago egin.
- 200 Lüzaz mintzatü ondoan
heben züen aitzinean,
bürütüz perediküa
ordü da ixil gitean.
- 201 Entzüle goxoak, arren,
zoazte züen etxeatarat;
bena züeki girate
betikoz hebentik harat.

Kanta Atarratze Jauregian

Atarratze jauregian bi zitroin doratü;
Ongriako erregek batto dü galtatü;
Arrapostü üken dü ez direla hontü,
Hontü direnean batto ükenen dü.

Atarratzeko hiria hiri ordoki,
Hur handi bat badizü alde bateti;
Errege bidea erdi erditi,
Maria-Maidalena beste aldeti.

Aita, saldü naüzü idi bat bezala;
Ama bizi üken banü, aita, zü bezala,
Enündüzün ez joanen Ongrian behera,
Bena bai ezkontüren Atarratze Salala.

Ahizpa, joan zite portaleala,
Engoiti horra düzü Ongriako erregea;
Hari erran izaozü ni eri nizala,
Zazpi urte hontan ohean nizala.

Ahizpa, enükezü ez sinetsia,
Zazpi urte hontan ohean zirela;
Zazpi urte hontan ohean zirela;
Bera nahi dükezü jin zü ziren leküala.

Ahizpa, jaunts ezazü arrauba berdea,
Nik ere jauntsiren dit ene xuria;
Engoiti horra düzü Ongriako erregea;
Botzik kita ezazü zure sor etxea.

- Aita, zü izan zira ene salzale,
Anaie gehiena dihariren harzale,
Anaie artekoa zamariz igaraile,
Anaie ttipiena ene lagüntzale.

Aita, joanen gira oro alkarreki;
Etxerat jinen zira xangri handireki,
Bihotza kargatürrik, begiak bustirik,
Eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ahizpa zuza orai Salako leihora,
Iparra ala hegoa denez jakitera;
Iparra balinbada goraintzi Salari
Ene korpitzaren txerka jin dadile sarri.

Atarratzeko zeinüak berak arrapikatzen;
Hanko jente gazteak beltzez beztitzen,
Andere Santa-Klara hantik partitzen;
Haren peko zamaria ürrez da zelatzen.

[III]

BARKOXE PASTORALA



Aita Junes CASENAVE-HARIGILE

[www.sudouest.fr/pyrenees-atlantiques/mauleon-licharre/
un-hommage-vibrant-a-aita-junes-9989253.php](http://www.sudouest.fr/pyrenees-atlantiques/mauleon-licharre/un-hommage-vibrant-a-aita-junes-9989253.php) (2010-07-15)

Lehen perediküa

Züek, gük kümitatürük, / jin ziradee saldoan;
Jei bat nahi dügü eman, / egün, üdako beroan.

Gure Barkoxe ez deizüet / aipatü beharrik ere,
Zeren eta aspalditik / ezagützen beikütüzüe.

Xiberotarrak girade, haier azkarki lotürük;
Badakigü hurak gabe ez dükegüla gerorik.

Zoin den gure historia / nahi günüke ikusi,
Züer heben parte eman, / eta jakinean ützi.

Behar dütügü hortako / milaka urteak hartü,
Nola ordü hetan ziren / xoko hontan abiatü.

Hantikdanik dü Barkoxek / bere jite berezia;
Menteen lüzean ez dü / borroka gabe hazia.

Baziren gotorgüneak / kanpokoen kontre han hor;
Askitan behartü zeion / aüzoeki izan gogor.

Iraultza ez zen Barkoxen, / izan batere itsusi;
Izan ziren herritarrak / beren izatearen nausi.

Üken dütügü ere bai / gizon zonbait ezagünak,
Herriko mügak hautserik, / ospez beterik direnak.

Arren, hoietan lehenik / ikus gure Beñat Mardo;
Omenzale handiena / üken dü Agosti Xaho.

Topet Etxahun izan da / koblakari handiena;
Horren lana da bildürük, / galdü bada Mardorena.

Leon Ütürbürü joan zen / gazterik Ameriketara,
Saleroskan, politikan, / lan handi an egitera.

Apez hanitx sortü dügü : / hoietan misionist zonbait;
Simon Zetegiet joan zen / hein bat zahartü bait.

Erakutsiko deitzüe / horik oro pastoralak;
Behar bezala hartzeko / egin itzazüe züen ahalak.

Sataneria

Satan eta Asmodeo zerbüttxaria, eskelerak gora

Asmodeo

Errazü, Satan, non zira / Barkoxeko herria gainti?
Harat honat bazabiltza / zer oker ezarri beti.

Satan

Izan ditean etxautes / ala ere karriperro,
Ari nük nola atzaman / ene zepoetan oro.

Asmodeo

Badakit zakü zorroa / ontsatto barna düzüla;
Eta horien biltzeko / heintto bat trebe zirela.

Satan

Horik oro, Asmodeo, / orai bazter ützt ditzagün,
Bi jauziren egiteko / parada badiagü egün.

Dantza; joan

I. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Kaoet, Karrikabürü, Solimantegi, Perkantegi, Paradisi, esküin

Ibarkotxe

Ene adiskide honak, / hau maite dügün herria;
Heben gure hontarzüna / eder da eta handia.

Kaoet

Gaineko, peko karridak / badütüğü algar ondoan.
Hantik sartzen gira bertan / lüze den Gaztelondoan.

Karrikabürü

Pekoan bada eliza, / San Salbador deitzen dena;
Gainekoaren erditan / zelüko Birjinarena.
Solimantegi

*Ameltze eta Oiloki, / Gibelegiet eta Malta;
Gero Biarño gaintialat, / Landar oibana, Larraja.*

Paradisi

Mendiak ere hor dira, / Ahargo, Gaztalamendi,
Eta Maidalena zerra, / bai Kanbillu harpeeki.

Perkantegi

Lüzean traukatzen deigü / herria landar errekak,
Harek eta Maltakoak / badütüe ere eiherak.

Paradisi

Bada Barbier eihera / eta Erretorekoa,
Paradis, Salaber, / Goitibar eta Pekoa.

Ibarkotxe

Horiek denek ekarten / düe herriari ederra,
Eta herritar güzier / barneko maite beharra.

Joan

2. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Oiloki, Sagardoibegi, Agerret, esküin

Ibarkotxe

Gozatzen dügü Barkoxen / egün oroz güik bakea,
Ontsatto zaintürrik beita / hebenko herri günea.

Oiloki

Hor dira gotorgüneak, / hantxe Gaztelügarate,
Lexegieta goiatagia, / bai eta Haitxandialte.

Sagardoibegi

Ontsa begiratzen gütü / Ezpelek iparraldean,
Eta Maidalena hor da / konkor txüt, hegoaldean.

Agerret

Gainti orotan beitügü / bai indarra bai zaingoa,
Üken dezakegü, arren, / heben bizitze goxoa.

Joan

Kanta *Goiz jeiki da zobardia*

Goiz jeiki da zohardia;
Xorutzen deigü begia,
Aranatzen beharria.
Orai zoin eder mendia,
Harentzat ene lehia.
Lürrean dago harria,
Emaiten beiteit jargia.

Papatxetan koloreak,
Iratze, belar xeheak,
Bai txixtazale oteak,
Gorriak eta berdeak.
Nabarrak, sendak, bideak,
Zurpailak, harri ateak,
Urdintzen ere botxeak.

Emaiten dütü txoriak
Bere kantore eztiak.
Arramaz dira behiak,
Marrakaz, aldiz, ardiak,
Eta, ere, axuriak.
Ozen denen tzintzarriak,
Hüilan elestots nasaia.

Baztertzen düt ixil mentsa.
Baraxtü da ene hatsa,
Piztü da ene amets,
Galtzen beitzait gogo hitsa.
Bidea bazen karatsa,
Balin bazen bake hütsa,
Orai oro doa ontsa.

3. jelkaldia

*Jelki Barsio, Uriaso, Arzaetxe, Segobritxe,
Aragarat, Ontzan, esküin*

Barsio

Bortüak traukatü eta / heben gira Ahargoan,
Ezpele gotorgünean, / hürünago abioan

Urdatxeko herriari / zor deitzogü esker handiak,
Eta ere Larraineri, / batzarri egile biak.

Uriaso

Haratago zer nor diren / ez dakigü ez ontsala.
Gure anaiak prefosta, / beitüe eüskaldün odola.

Arzaetxe

Haatik etsaiak dira / sartzen haien herrietan;
Kasü bai ez dütügünez / baratzen bazter hoietan.

Segobritxe

Badütügü gurekilan / zilar aberastarzünak,
Gure saldo honentako / beharrezko hontarzünak.

Aragarat

Gotorgünean gireno / ez dügü ihoren lotsa;
Indar gaitzak beitütügü, / ez dügü deüseren mentsa.

Ontzan

Hontarzün horik aitzina / gük eramaiteko orde,
Heben berean lürpean, / behar dira ontsa gorde.

Joan

4. jelkaldia

*Jelki Marina, Brijita, Lidia, Elena,
Monika, Sabina, Oibana, Lüxcia, exker*

Marina

Xibero bazter hontara / jin ziren Erromatarrak,
Eijerkitto ere hezi / horko bizizale tzarrak.

Brijita

Baliatzen züen, Erroman, / hebenko errauts gorria,
Han oihalen tintatzeko, / heben lehertzen herria.

Lidia

Bildü ditin Dagobertek / orai ere indar gaitzak,
Barkoxen eginen ditin / lüzagabe itxes latzak.

Elena

Arinbert din ezarria / güdaloztearen nausi;
Bertan agertzekoa dün / Xibero osoa gainti.

Joan

5. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Errekalt, Titinategi eta lagiinak, esküin

Ibarkotxe

Hüilantzen ari dirade / iparretik jin etsaiak;
Xiberotarrak bil eta / leher ditzagün güziak.

Errekalt

Eroanen ditzügü / Ehüjarreko nabala;
Han hersian, ezin eabil, / non dükee beren ahala?

Titinategi

Badakizüe bai zer egin / han bizi diren Santagraztarrek;
Ürrüntzütürik lürrean, / bazka badükee harrek

Sar Arinbert, Bayard, Rameau, Castillon eta etsaiak, taula zolatik

Arinbert

Züek eüskaldün abreak, / horra jinik züen goihentza;
Egün sai, otsoentako, ziratee mila peza.

Ibarkotxe

Bazter ohil hoietara / zütüegü erakarri;
Arma bezala badügü / nasai azkon eta harri.

Bayard

Jakinen düzüe nor giren / gizon gaixki hegaztüak;
Ez deitzüegü auherretan / egin gure mehatsüak.

Arinbert

Adiskideak, eman hor, / esküin, exker, jo eta jo;
Erakuts gure ahala, / ez girela ez aizejo.

Egin güdüka, etsai zombait bil, besteak ibes

Kanta *Bakea*

Güzietan ari da pizten
Herra eta bortizkeria,
Nausi beita okerreria.
Ez da egün bat iragaiten
Sortü gabe abrekeria.
Klukatü nahian da hartza
Eta lazten zaigü bihotza.

Nahi zünüke bildü üzta?
Lürrean ezarzü ereintza.
Nahi düzü ere jan früta?
Lantatü behar da zühaitza.
Üken nahi düzü bakea?
Honar ezazü züzenbidea,
Zabaltüko zaizü bidea.

Ez daiteke indarrrik gabe;
Behar da hanitx nahiküntea.
Bürüa balin badüzü arin,
Bakerik ez daiteke egin.
Argi bada züzentarzüna
Eta ere zühürtarzüna,
Hor bakearen ekoizpena.

6. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, eta Koioz, Bakardatze, Ürrüxtoi,
Garate, Sühit, Paradisi, etxekandereak, esküin*

Koioz

Elixaino bat badiñagü, / Malta xoko eder hontan,
Merexi düan bezala, / Mariaren ohoretan.

Bakardatze

Zeren eta agertü beitzen, / arantze baten pean;
Eta belarikatzen zen / idi bat haren ondoan.

Ürrüxtoi

Beruetan bizi diren / Maltako zaldünen eskü
Dügü, Barkoxen, güne hau, / ederki beitüe düntü.

Garate

Konpostelako bidean, / ezagütürrik da orai;
Sentoralzaleak dira, / eküratzen botzik hor bai.

Sühit

Hen arteko behardünek / badiñe ospitalea;
Eta hor bil dezakee / behar den indar betea.

Paradisi

Osagarriaren galtoz / edaten düe ütürrian;
Hanitxek beren korpitzak / xahatzen mainütegian.

Ibarkotxe

Beilak egiten dütügü, / San Bladiz kabaleentako,
Santa Agataz, urtean / hon den aiziarentako.

Maria otoizten dügü / abentüaren zortzian;
Agorrilan, haren bestan, / hamabosteko oktaban.

Joan

Sataneria

Jelki Satan eta Asmodeo, exker

Asmodeo

Bi aüzo herran dütügü, / josbaigtarrak, barkoxtarrak.
Lehenek nahi dütüe / hartü Larrajako lürrak.

Satan

Ttipit baledi Barkoxe, / ez lükek segür itsusi;
Borrokan sar ditean / nahi nitek nik ikusi.

Asmodeo

Zük gogoa düzü beti / bete betea küperüz;
Zirikatzen laket zira / bata besteari bürüz.

Dantza; joan

7. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Kanpo, Larranda, Lapitz, Erramun Ailande Maule jauregiko kapitaina eta lagünak eskiün; Foixeko Margarita, Buziko Miramunda, Burdibet, Salette, Solanille, Kabane eta etsaiak exker; Ledeuixeko Gaillard, Oloroko apezküüüa, erditik

Burdibet

Barkoxek beretako dü / Larrajako lürraldeä;
Gü josbaixetarrentako / handi da beharrünea.

Kanpo

Kabaleentako iaurgeia / hor dügü gük edireiten,
Behar dügün iratzea / hortik beütügü elkitzen.

Salette

Bena lür horik ez dira / ez züen etxaltekoak;
Gotzarentako dütügü / gük ere baliatzekoak.

Larranda

Gure behi ardiak / ezarten dütügü alan,
Bortüalat joan beno lehen, / bai eta larrazkenean.

Foixeko Margarita

Larreja Barkoxeko da / üsantxa zahar zaharraz;
Ez daiteke züen artean / deüsik antola aharraz.

Erramun Ailande

Züzenak manatzen deigü / hola ütüz dezagün dena;
Nahaskeriaren orde, / goza dadin zorihona.

Ledeuixeko Gaillard

Diosesako nausi beiniz, / nahi nüke züen artean,
Izan dadin egiaz bake / baten besteen honean.

Badakigü ontsa denek / Barkoxeko dela Larreja;
Gäüzak ütüz ditzagün hola: / horra zer diozüedan nik ja.

Joan

8. jalkaldia

*Jelki Arnoton, Barkoxeko apata, Peiroton Arbide bahamontesak;
Petrisantz-Berteretx agaramontesa eta Margarita Arbide ezkongeiak esküin;
Beinat Arbide Oloroko bikario orokorra, erditan*

Arnoton

Hau dela egün handia, / bi gazten ezkontzea;
Gaüza ederrena beita / biek algar maitatzea.

Peiroton Arbide

Agaramontes etxea / eta bahamontesena
Etsai izan dira beti; / gora, arren, batarzüna.

Sar aingürüiak, kanta

Hasten dügün egüna / bientako da berezia,
Leinürü bero batetan / sartzen beita züen bizia.

Eder da algarrekilan / eginen düzüen ürratsa;
Jagoiti züen bi etxeer / emanen dü bake hatsa.

Beinat Arbide

Nahi ziraea izan senar-emazte?

Biek

Bai, Jauna.

Beinat Arbide

Bat ziratee betikoz / biak hebentik aitzina;

Eta handitüz doala / orai düzüen maitarzüna.

Kanta *Maitarzüna*

Agertü da azkorria
Eta hareki argia.
Hartarat denen lehia.
Pizten ari da bizia.
Didir doa maitarzüna.

Txoria hasi da txiuntan.
Hantzen da bere lümetan,
Besteak ondotik bertan,
Kükütürük adarretan.
Kantan doa maitarzüna.

Zotükatzen da gizona.
Hartüko dü bere lana.
Badü segür zer egina,
Zeren llabür den egüna.
Lantüz doa maitarzüna.

Altxa ezazü bürüa,
Aitzinean düzü bortüa,
Txüt eta gotor botxüa:
Bailakatzen dü zelüa.
Gora doa maitarzüna.

Bero da aro ederra,
Eta zoin eder bazterra,
Berde zühainen adarra,
Frütü badüe leherra.
Sütan da maitarzüna.

9. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Pordoi, Eihartxe, Bordagoren, Zatzuri,
Ddonddon, barkoxtarrak esküin; Altape, Regen, Nutari,
Salefranque, Leride, Blanku, barlanestarrak, exker*

Ibarkotxe

Balia ditzakezüe / alagia gure lürrak;
Gük, aldiz, züen oihanetan / bai zurak eta egürrak.

Altape

Barlaneseko oihanaz / hau dügü hartü xedea:
Debetatzen dügü, arren, / egür eta zur moztea.

Regen

Hamabi urtez behar da / oihana debetü ützi,
Ez dezagün egün batez / txit tipiltüa ikusi.

Pordoi

Aspldítik badugü / egür biltzeko züzena;
Ez bagütüzüe üzten / handi dükegü ogena.

Eihartxe

Badakizügü Barlanes / Xiberoko zela beti;
Santa Grazi herriari / Albret janak züan elki.

Bordagoren

Jadanik min egin zeigün / erre beitzeikün eliza;
Orai ere gure kontre / badüzüe herra gaitza.

Ddonddon

Ez gira hola egonen, / gure esküak burustan,
Nahi beitügü xüxena / eginik dadin denetan.

10. jelkaldia

*Jelki Tatxet, Lohidoi, Andai, Lagüna, Eiberabide,
Kerrit eta lagünak eta artzainak ardieki*

Tatxet

Behar ere badütüğü / Basabürüko bortüak,
Belar mardulaz beitira / beterik hanko leküak.

Lohidoi

Ontsa dirade bazkatzen / ardiak eta behiak,
Urdeak eta astoak, / mandoak eta zaldiak.

Andai

Aberats Pista, Betzüla, / bai eta Ibarrondoa,
Ardane bai Harlüzea / eta han horko xokoa.

Kanta *Bedatxean hegaixtiak*

Bedatsean hegaixtiak habia antolatzen,
Zühaitzen adar berdean, eijerki parpiñatzen.
Ttipiak sortü bezain bat nola ez dütü zaintzen!
Haiekilan dago beti, artoski begiratzen.

“Haurrak beharko zaizüe bertan herrisbestetü,
Herrian ez delakoan lanik ahal plantatü.
Lürrak batek edo bestek arrotzer saldü dütü;
Eta züentako dira sobera kariotü”.

Etxalteak hüts ützirik han hor ageri dira.
Zer minek arren jo dütü, heltürük hein hortara?
Etxeetan ondorerik ez zena aitzinara?
Itxes handik ote dütü ekarri erortera?

Ohidüren arabera ondoko da lehena;
Izan primü ala prima, etxaltea harena.
Üsü aitetamek düe hartü behar ez zena,
Potiko batek düala lagüntza hoberena.

Neskatilak bai dütüe hirialat igorri,
Zirateala andere zonbat amiragarri.
Zoin heinetara herria hola düen ezarri,
Behar lizate oroer agertü lotsagarri.

Funtsak xütik beitirade, bada bizipidea,
Aüzoko etxean ere hor da bizizalea.
Potiko bai neskatilek egiten gizartea,
Biek eraikiko düe herrian etxaltea.

I I. jalkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Bizkai epailea, Etxandi abokatua,
Agazi eta Ezpel etxekandereak, Salaber, esküin*

Ibarkotxe

Berri txarra jakin dügü / gure herriarentako,
Zeren eta beiteiküe / epaitegia elkiko.

Bizkai

Aitzinara date Maulen, / han beitiüe jauregia;
Eztabaden jüjatzeko / han date gure bilgia.

Etxandi

Harrigarri ikusten dügü / hartü den erabakia,
Zeren eta Maule beno / handiago dügün herria.

Agazi

Auzi bat bagünüalarik, / egün bat igaraiten züan;
Orai Maulen beitate, / behar date egon gaüan.

Ezpel

Gastüak bai dütükegü / hanitxez handiagoak;
Eta gaüzen prestatzeak / dirate lüzeagoak.

Salaber

Bizkai dügün epaileak / ezagützen gütü ontsa;
Arren, antola dezake / gü bakoitxaren ürratsa.

Ibarkotxe

Lekü batetan ezarriz / xiberotarren auzia,
Ezin ürrentüz dateke: / nausitüko da gaizkia.

Joan

I2. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Ibarrondo, Etxegoin, Azkar, eta lagünak eskiün

Ibarkotxe

Zentü da Pierra de Sarri, / Barkoxe maite beitzüan;
Herrian parte hartü dü, / hüilantik bizitzen züan.

Ibarrondo

Petiriñen zen erretor, / Xiberoan züan bihotza;
Zinbidetako kide zen, / ebakitzen züan lan gaitza.

Etxegoin

Nahi izan da ehortzi / gure eliza heipean;
Oritzapen bat badüküe / elizan sartzean.

Azkar

Bizitzean agertzen zen / müsikari, olerkari;
Arteka idazten züan / kantore amiragarri.

Kanta *Ürzo lüma gris gaxoa*

Ürzo lüma gris gaxoa,
Ore bidajin baho;
Baratzen bazaik musde Sarri, jaun apetitü hon hura,
Begiz ikusten balin bahai Petiriñalat baho.

Ürzo gaxoak ümilki
Diozü musde Sarriri:
Egündano eztereiola ogenik egin joan hari,
Ützi dezan igaraitera üsatü düan bidetik.

Auher dük, auher, ürzoa,
Jüratü diat bedea!
Aurten, aurten jin behar dük eneki Petiriñala;
Han nik emanen dereiat art'eta zahiz asia.

Artoz asia hon düzü
Libertatea bagünü;
Oriko bago ezkürtto hurak guri hobexe zizküzü,
Anglesa Frantzian sartzen bada Españalat bagoatzü.

Ürzoa, ago ixilik,
Frantzian eztük Anglesik;
Baionara jiten badira Agaramontek hilen tik;
Petiriñalat eztük jinen zaragolla lüzetarik.

Fida niz zure erraner,
Fidago ene hegaler;
Goraintzi erran behar derezü jiten badira angleser,
Nik ere ber gisan erranen diet español papo gorrier.

Goraintzi erraile angleser
Ni naika ezarten mezüler?
Orai diat orai ikusten nitzaz hizala trüfatzen,
Areta enaik bete urte batez bortüan freskera ziren.

Jauna, zoaza etxerat,
Mauletik Petiriñalat;
Txori eta bilagarro gizen zonbaiten jatera,
Ürzo hegal azkartto hoiek ezkira zure bianda.

I3. jalkaldia

*Jelki Monika, Sabina, Oihana, Lüxia,
Marina, Brijita, Lidia, Elena, gorriak, exker*

Monika

Barkoxe borrokatü dün / biarneseeki lehenago;
Orai ikusten diñagü / barnen nahasirik oro.

Sabina

Eta hor beti bezala / nausi dütün aberatsak;
Nahi ditiñae bilaizi / herriko jente xühürrak.

Oihana

Eni ez ziztan itsusi / beren arteko aharrak,
Nork ükenen dütüan / hanko puska eta lürrak.

Lüxia

Barkoxe, badakiñagü / hühüz beterik dagola;
Ezagüt beza heintto bat / bizizaleen trahola.

Joan

I4. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Armand Düdoi, Ferdinand Roger Kadixen salerosle,
Galarret, Detxandi, Darretxe, Larregorri, Tuan, de Vergennes arduradiina, eskiin*

Ibarkotxe

Tolosarik Madrillera / nahi düe egin bidea,
Barkoxeren traukatzea / hartü düe xedea.

Düdoi

Hau lizateke gisala / harateko llabürrena;
Hebenko langileeki / nik düt egin behar lana.

Roger

Herriaren gain üzten düe / bide horren zilatzea;
Hortakoz erabaki da / herriko lürren saltzea.

Galarret

Eta kanpokoak dira / agertzen lehen erosle,
Bai eta beti bezala, / lürrik hobenen harzale.

Detxandi

Horiatarik bat dügü / Karrikondo aberatsa;
Merkagiakoen biltzeko / egin dü jada ürratsa.

Darretxe

Behar düe handimandiek / gure artean izan nausi;
Gure heineko ttipiak, / aldiz, orotan zohatsi.

Larregorri

Gü ez girela laborari / hartzen düe estakürü,
Hobeki bizi gitean / girelarik hor haidürü.

Tuan

Jauna, lür horren saltzea / behar düzü debetatü,
Zeren eta hori galdüz, / merkatüa galtzen beitügü.

de Vergennes

Nik heben honartzen dütüt / züen arrenküra handiak;
Arren lürrak ez dirate / Karrikondori ütziak.

Joan

15. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Beñat Mardo, Üharteko Gabriel barua,
Üharteko Armand-Johane semea, Arbutiko Salbat de La Plaza barua,
Mari de La Plaza alaba, esküin*

Ibarkotxe

Koblakari Beñat Mardo, / Harro gira Barkoxen;
Ez daiteke ihon ere / zü üdüriko ediren.

Beñat Mardo

Bizi iz peko karrikan, / Han beiniz lanean ari;
Eta gazte gaztedanik / ofizioz niz dendari.

Haixtür kaldü baten / eta bi jos püntüren artean,
Egiaz plazer handi dit / kobla baten emaiten.

Üharteko Gabriel

Handi da, badakizügü / orotan zure omena,
Eta ere aipatürük / Beñat Mardoren izena.

Salbat de La Plaza

Ezagütürük zirade / Xiberoan, manexean;
Koblak emaiten dütüzü / beti glaska mingarrean.

Üharteko Armand-Johane

Ez ditizügü ahazten / gure ezteitako koblak;
Alageratzen dütüe / arteka gogo bihotzak.

Mari de La Plaza

Bai etxekitzen dizügü / ordüko oritzapena,
Hazten beitä horrek ere / gure bien maitarzüna.

Kanta Ni deitzen nük

Ni deitzen nük Beñat Mardo, Barkoxe Baxabilako:
Otoitzen hait ez dizadala kantorerik hont haboro;
Ez dakika ni nizala bürüzagi hartako?

Kantore hontzala hizalako z düka hartzen banitate?
Aprendizik ez zaik ez jinen Gainetarik batere;
Baxabilako laurentako nihaur enük ahalke.

Zintzarri egile nizala ez hadila ez düda:
Areta ehait interrunpitü izigarri ardüra
Bürdüinaren xerkara jinik hire magasiala.

Hitzaz gütük estonatzen, Museinako kuntea,
Zerentako hartzen dian Gainetarren altea:
Areta nik ere ez diat horetako antsia.

-Kunte, markis, kardinale ezin izan gintake;
Hobe diagü bai egonik hartü gabe banitate,
Hi tailür hizan bezala ni zintzarri egile.

Jelki Satan eta Asmodeo, exker

Satan

Asmodeo, ikusten naük / hartürrik ezinegonak;
Barkoxeren nahasteko / horra zizgük egün honak.

Asmodeo

Ez da zure bürüko hüna / ihoiz ekürü egoiten;
Taigabe bultzatzen zütü / zerbait berriren egiten.

Satan

Ene zerbütinari beihiz / ez dezakeiat deüs gorde;
Frantziako pe hartarik / jiten ziek herrabide.

Dantza; joan

I6. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Jauregiberri Maltako zaldüna, Klemente Barbe-Ühart apata jauna,
Tartas erretora, esküün; errepublikako prokuradorea hedexurieki, exker*

Prokuradorea

Orai kantonamentüko / herri nausi da Barkoxe;
Horren erraitera jin niz / egün, züengana, honaxe.

Ibarkotxe

Bai eta ezarri / Xiberoko parrophia
Oloroko diosesari / oraidanik estekia.

Jauregiberri

Herriaren eskü dateke / maltako elizainoa,
Beruetako zaldünek / hantik beitügü kanpoa.

Klemente Barbe-Üharte

Nik ere ützi behar düt / eliza bai apatea;
Erretora izanen da / herriaren langilea.

Prokuradorea

Herriak dü ordaitüko / kargüdün bezala, arren,
Bena errepublikari, / ez zin egin beno lehen.

Tartas

Nik ja begiratüko düt / betiko libertatea;
Zeren ez dezaket honar / bortxatü zin egitea.

Joan

17. jelkaldia

*Jelki Monika, Sabina, Oihana, Lüxia, Marina,
Brijita, Lidia, Elena, gorriak, exker*

Monika

Badiñagü segür egün / zertzaz boztaria,
Frantziako iraultzak beitu / Barkoxe hau nahasia.

Sabina

Mauleko bozkazleak, / Barkoxekoen ixiliz,
Herriaz dütün trüfatü / Loja, erretor ezarriz.

Oihana

Asto baten gainen, arren, / hartü diñe erretora,
Harat honat erabili / bizkarrez jarririk bera.

Lüxia

Idazkari, Doiller jauna, / Oloron gotzaintegian,
Zin egiteari ihes, / non da bere gordagian?

Marina

Hala hala egin diñae / Barkoxen sortü apezek;
Lasseubetaten bikari, / igaran din müga Ezpainek.

Brijita

Eta aizatü ditinae / beren komentütik kanpo,
Mariangraza Bazterretx, / Kattalina Karrikondo.

Lidia

Honek hogeita hamalau / urte baziñan serora;
Harek berrogeita hamabost, / orai emazte xaharra.

Elena

Egoiten dütün gorderik / Karrikabürü, Bizkai,
Salerosleak beitura, / bai Roger eta Etxandi.

Joan

Kanta libertatea

Taigabe ari da gizona
Nola bila zorihona.
Hori haren dei azkarrena.
Balin bada izikeria,
Ekar dezake errabia,
Eta ere abrekeria,
Eta ondotik hilobia

Ez daiteke egon menpeko,
Ez lizate libre haboro,
Bena bai besteen esklabo.
Zer ote da haren jitea?
Gozatzea libertatea.
Hori da bere izatea,
Jentetarzünaren betea.

Libroki bizi daiteke,
Lehergailü badü nekea,
Nausitzen ez bada bakea?
Hartzen badü senda zeharra,
Egiten ere bai okerra,
Xüxentzeko badü indarra,
Marratzen dü bide ederra.

Ikara da urrixkitürik,
Ixil lürrean lehertürik,
Gogo bihotzetan zaurtürik.
Egürükitzen dü argia;
Noiz jeikiren den azkorria.
Idekirik so dü begia.
Bere ametsa dü bizia.

I8. jelkaldia

*Jelki Mari Jegiber, Mariana Bazterretx, Xaxi Ütürri, Graxiana Ühalt,
Maidar Oibenart, Ibarkotxe, Pette Beltzun, Dominika Püxiülü, esküin,
Rousseau, Lassalle, Brun, Lagarde eta etsaiak, exker*

Rousseau

Gaüzak gaixki badoatza / aspaldixkoan Barkoxen;
Ez dü hebenko jenteak / Estadoa zerbütatzen.

Ibarkotxe

Galtegiten dügüna da / goxoki bizitzea,
Eta gure ohidüren / aitzina etxekitzea.

Lassalle

Ekarrarzi zütüegü / xehetarzün ükeiteko,
Zeren eta galtzen beita / herritik gazte ontxasko.

Mari Jegiber

Badakizüe Semea / Espainan bizi dügüla;
Heben gure etxalteak / ttipi dü bere ahala.

Mariana Bazterretx

Eneak, aldiz, Kadixen / badütü salerospenak,
Ameriketarartino / beitütü harremanak.

Xaxi Ütürri

Gurea non zertan ote den / batere ez dakizügü;
Etxen, egün oroz gira / haren berrien haidürü.

Graxiana Ühalt

Haurrak hazi ditizügü / bide xüxena har dezaen;
Gehitü eta, ordüan, / berek dizüe haütatzen.

Brun

Züen etxeokak dira bai / galdürik diren semeak;
Zorretan, jakin ezazüe / dirade züen etxeak.

Lagarde

Bakoitxak, urte güziez, / bi soldadoen jauntsia
Ordai eman behar düke, / bai eta hoiien saria.

Maidar Oihanart

Nola egin dezakegü: / nahi gütüzüe eho.
Gütarik bat ez daiteke / herrian bizi haboro.

Rousseau

Züek guziak zirae / iraultzaren etsai;
Eramanen zütüegü: / ziratee gure bahi.

Pette Beltxun

Ez düzüe ez eginen / nahi düzüena gützaz;
Züen abrekeriak bete / behar dütükezüe bortxaz.

Dominika Püxülü

Züen erabakiak dira, / ikusten dügü, okerrak;
Ez dezake heben irain / ekarten düzüen herrak.

Güdüka, emazte zombait eraman babi

I9. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Leon Ütürbürü, Maria Derdin, Julia Alkat, Teresa Alkat,
Maria Üdoi, Schmarsow erretora, Emila Davantes dibarietxe nausia, esküin*

Leon Ütürbürü

Lüzaz ene bizitzean / Ameriketean egonik,
Orai botzik niz Barkoxen / bizitzera jinik.

Ibarkotxe

Badakitzügü han gainti / egin dütüzün aferak;
Heben hori salatzen dü / zure bihotz honak berak.

Leon Ütürbürü

Gaztedanik entzün nizün / hürünealako deia;
Lanean eta nekean / han igaran dit bizia.

Kitoko hiri nausian, / Equadorean nündüzün;
Banko handi baten jabe, / diharü hanitx banizün.

Han Villemil jenerala / onsatto nizün lagüntü;
Bere soldadoen soldata / nik niozün lüzaz eskentü.

Ordaitzeko eman zeitan / eihera bat, handiena,
Guayakileko ibaian, / üharte bat, Floreana.

Schmarsow erretora

Heben ere zuri esker, / berritzen dizügü eliza,
Eta herriko behartsüer / ekarten düzü lagüntza.

Leon Ütürbürü

Zeren beharrüentako / handi beitüt arrenküra,
Üzten deiet Floreana / bai eta ere eihera.

Maria Derdin

Zure zerbützüko beiniz, / ez naüzü ez ni ahazten,
Bena bai zahar saria / deitadazü segürtatzen.

Julia Alkat

Teresak eta nik ere / hanitx eskertzen zütügü,
Eta maite zütügüla / orai erraiten deizügü.

Leon Ütürbürü

Gäüza latza lizateke / ohidüren ahaztea;
Arraheinki bete düzüe / aüzoen eginbidea.

Maria Üdoi

Nizan küzüinarentako / badüzü bihotz ezta;
Haz eta etxek dezagün, / amodioan familia.

Emila Davantes

Zure hontarzün güzien / ükeile egin beinaüzü,
Oro xüxen beteko dit : / hor okerra ez haizü.

Joan

Kanta algar lotüak

Jentartean bizi girade denak.
Tink etxek ditzagün harremanak,
Bai eta lokarri azkarrenak.
Ihor ez daiteke egon berez;
Besteer lotürrik gira elez,
Eta haboro gure egintzez.

Horrek ekarten deigü bai indar,
Algarren ezagützan pizten gar.
Badügü zer ikas eta zer har.
Izan gitean orozgain ezti,
Ihoiz ihorentako bekaixti,
Ixil eta apal ebil beti.

Sortzen beitzazgü ere beldürrak,
Nasai dütügü gure beharrak,
Lagün hon dütükegü zühürrak,
Egünorozko akodíñetan,
Lankei eta egin güzietan,
Boztario bildüz bihotzetan.

20. jelkaldia

*Jelki Ibarkotxe, Maddi Latxagaborda, Etxeber, Elisabet Gorostordoi,
Goibeski, Graxiana Lüro, Lexardo, Pierra Topet-Etxahun, esküin*

Ibarkotxe

Barkoxen hizanaz geroz, / Pierra heben gütük egün;
Koblakan izan eta / üdüri dük hein bat ülün.

Topet-Etxahun

Zahartzean nola izan / aitzinagoko trenpüan;
Bena badiat halere / ahaide ene bürüan.

Maddi Latxagaborda

Gaizki hanitx erran dük / Junes aitaz, ama Graxiz;
Seme batek maite ditik / aita ama bihotz eztiz.

Topet-Etxahun

Eneek ttipitik haste / ützi niñe baztertürük;
Nola üken haientako / den mendren ere bihotzik!

Etxeber

Eta ihor ere ez dük / kobla gaitzetan ahazten,
Ofizialdün güziak bai / dütük handizki jorratzen.

Topet-Etxahun

Arrenküra handi düe / diharü erabaztea;
Arrenküra ttipiena, / lan ederren egitea.

Elisabet Gorostordoi

Gaizki erabilten dütük / apezak ere segürki;
Ata Schmarsowek eliza / apaintzen dik arraheinki.

Topet-Etxahun

Taigabe ükatzen ditan / eni komüneonea;
Züer pastoralzaleer, / aldiz, absolüzionea.

Goiheski

Entzün diagü Hegiapal / hiltzeaz dük mehatsatü;
Zübü altean gorde eta / Etxegoihen dük kolpatü.

Topet-Etxahun

Jakile faltsüak ditie / eni kontre jalkiarazi;
Holako nahikünterik / ez diat nitan ihoiz hazi.

Graxiana Lüro

Izan zira, hoinex joanik, / sentoralzale, Erroman,
Egin düzü otoitz hanitx / Barkoxe ahatze gabe han.

Topet-Etxahun

Bai ene pilta txarreki, / ez nizüe ez han baztertü,
Aita Saintüaren ganik / Jesús dit ahoan hartü.

Lexardoi

Etzerik ez, begi bakoitx, / Barkoxen bai besteetan,
Jenteek lagüntzen haüe, / hartzen beren etxeetan.

Topet-Etxahun

Bihotz barnetik ditiat / dener emaiten eskerrak.
Hona aspaldiko koblak / hortaratürük beharrak.

Kanta *Bi berset dolorusik*

Bi berset dolorusik nahi dizüt kantatü,
Plazer düzüelarik, jente honak, behatü.
Berrogeita lau urtez ni izan niz persegitü,
Non ez zaitadanean familia jelostü,
Oroz arnegatürik nahi nüzü partitü.

Parkatzen dit ene sofriarazler,
Hala nola beiteie Jinkoak egin berer,
Bena ez dit parkatüren eneak dütüener,
Non eta ez dütüen errendatzen ene haurrer;
Berset horrez mintzo niz küinat eta aurrider

2I. jelkaldia

Jelki Marina, Brijita, Lidia, Elena, Monika,

Sabina, Oihana, Lüxia, exker

Marina

Simon Zetegiet deitzen den / potiko gazte bat badün,
Herriko karririk gainti / badoan trostaka zaldün.

Brijita

Neskatilak errekan / ari zütüinan bukatan,
Bai eta beren artean / solas handi gaitzetan.

Lidia

Han agitü dün arnegata / erreka lohi bezala
Goraxeago ezarri din, / zikintü haien oihala.

Elena

Neskatilak, goiti joan eta / potikoa diñae hartü,
Bilaizirik ezarririk, ontsatto diñae zurratü.

Monika

Etxehunak jakin din hori / kobla zonbait ere hontü;
Behar diñagü bai, arren, / puxka hau heben kantatü.

Kanta

Barkoxen nahi denak gaüaz paseatü,
Zaragoilak behar tü ontsa butuatü,
Ezi ber süjeta izan zaigü heltü
Emaztek düela gizon bat zehatü.

Sataneria

Jelki Satan eta Asmodeo zerbütxaria, exker

Asmodeo

Satan, üngürü handi bat / eginik bazter hoik gainti,
Ari nüzü nola datean / jentea orano bizi.

Satan

Hedatü diat denetan / alabadereko lotsa;
Ene xede azkarra dük / oroek gal dezaen hatsa.

Dantza; joan

22. jelkaldia

Jelki Topet-Etxahun eta Simon Zetegiet apeza, esküin

Topet-Etxahun

Jinik nüzü mintzatzera / zureki, Simon Zetegiet;
Ama Birjinari, zuri, / esker hanitx zor deizüet.

Simon Zetegiet

Hunki jin bai zuri, arren, / Sarrantzen sentoralzale,
Zeren Jinko hona beita / heben denen parkazale.

Topet-Etxahun

Barkoxen ez düzü hala; / Schmarsow gure erretora
Ttipieki idor düzü / aleman arrazatik bera.

Simon Zetegiet

Ni barkostarra izatez, / badakitizat zure koblak;
Minki erabilten düzü / jentea eta apezak.

Barkoxen erretor dena / eta Tiraz bakoixtarra;
Tzorrotz beitütüzü leitak, / usukia düzü tzarra.

Topet-Etxahun

Egün batez joan nintzaozün / nahiz hari kofesatü;
Heltü nintzan bezain sarri, / arrunt zitazün ükatü.

Hartakoz nüzü hona jin, / zeren zük naüzün entzüten;
Kontzentzia oker badüt, / zük düzü ontsa argitzen.

Simon Zetegiet

Jakin ezazü, arren, hau: / Jinkoa da parkazale;
Garikoitz apez saintiak / dio zonbat den maitazale.

Ni ere gogor beinintzan / eta segür egin dit min,
Ordüan hari jarraikiz, / bide behartü zait egin.

Topet-Etxahun

Barkoxen izentatürik, / bikario egon zinen;
Lehen hitzaldi emanaz / botzik nüzü oritzen.

Zure peredikagütik / gaztezaroko okerrak
Apalki erran züntüan, / hanitx hunki herritarrak.

Simon Zetegiet

Ükazü hori gogoan, / har Jinkoa ikusbide;
Izan zite parkazale, / maitati ere taigabe.

Joan

23. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Simon Zetegiet, Topet-Etxahun, esküin

Ibarkotxe

Egari berri dizügu / izürrite itsusia,
Azkarki jo beitu ere / gure Xibero güzia.

Biak jakile zirae; / badakizüe zer izan den,
Zetegiet han hor orotan, / eta zü, Etxehun, heben.

Topet-Etxahun

Hil direnak hamazortzi / izan badira Barkoxen,
Engraxi eta sühia / üken ditit ere etxen.

Simon Zetegiet

Eriak izan dütüzü / azkar jorik güneka,
Bai gure Eüskal Herrian / eta Biarnon ehünaka.

Topet-Etxahun

Ordü latzak izan dira / Behobian eta Maulen,
Ortezen eta Hendaian, / Bidaxünen eta Saliesen.

Ibarkotxe

Barkoxen jakin dizügu / joan zirela erietara,
Hilak, zure bikarrear, / eramaiten ehorztera.

Simon Zetegiet

Hiltzera zoan emazte bat; / debetatü izana gatik,
Pegar bat hur eman niozün; / xütitü zen sendotürrik

Topet-Etxahun

Ameriketako zerbait / entzün dit egün hoietan;
Eüskal herria bai Sarrantze / zonbait zirae üstekotan.

Simon Zetegiet

Hanko euskaldünentako / gogor da apez gabea;
Nola behar lirokee / etxeki beren fedea!

Bada himeretzü apez / orai Barkoxe herritik;
Zonbait bagütüzü, arren, / harako deia entzünik.

Pierra Sardoï badit lagün, / erretor da Mendikotan;
Gotainen erretor dena, / hau da Batista Harbüztan.

Joan

24. jelkaldia

Jelki Ibarkotxe, Ihitzaga, Ürrüti eta lagünak esküin

Ibarkotxe

Egün hon, adiskideak, / goihentzala heltzen beiniz,
Arte goxo bat heben / igaran dezagün berriz.

Ihitzaga

Herrokatü düzü hanitx / Barkoxeko bizitzea,
Xeheki ere ikusi / zük historia lüzea.

Ürrüti

Üken ditizügü, arren, / gure herriko haütüak;
Eta horik izan dira / lürra gainti aipatüak.

Ibarkotxe

Ez ditzagün ahatz Mardo, / Etxehun, koblakariak;
Aranatüren dütügü / hoiien kantore biziak.

Ütürbürük eman deigü / Floreana ühartea,
Behartsüen lagüngo, / herriko apezetxea.

Ihitzaga

Zetegiet egon da hürrün / sei urtez misionetan;
Eta lan gaitza eginik, / hil da Buenos Airesetan.

Ürrüti

Jente zionea bildürik, / egin dütüe ehortzetak,
Liliz beterik sei orga, / eliza oroen txortak.

Ibarkotxe

Üken ditizügü ere / gure pastoralzaleak,
Bai errejent agüdoak, / eta idazleak.

Himeretzü mente hori / üken dügü aberatsa;
Hoietan bil genezake / ahal zortzi izen aisa.

Sar aingürüak, kanta

Hona orai, Ibarkotxe, / ütziiko düzüla herria;
Bena ez düzü galdürük / bizitü düzün güzia.

Garretan üken beitüzü / herriaren amodioa,
Jagoiti gozatzen düzü / bai betiko boztarioa.

Ibarkotxe kanta, belariko

Bizi izan nizan lürra / ez düt üzten ixustean;
Güzieki bat izanik, / banoa egün bakean.

Opatzen deizüedana / da honar dezazüen algar,
Goxoki bizi zitaen, / orai eta ere bihar.

Hil, eraman

Azken perediküa

Züen ikustean jarri zen / dildira gure korpitza;
Bena emeki hasi da / hanpatzen gure bihotza.

Kartsütarzün handireki / eman dügü pastorala;
Eta uste dügü ere / hanitx gozatü zaizüela.

Süjeta hartü beitätü / Barkoxe gure herria,
Entzün, ikusi düzüe / zer zen haren historia.

Hau izan da aberatsa, / gük eman beno haboro,
Zeren eta mügatürrik, / ez dügün agertü oro.

Hilabete horietan, / sortü da gütan gosea;
Gure nahia izan da / züen beitan ere piztea.

Beha egon zitzaizgüe: / zor deitzüegü eskerrak.
Lagünt zitzaela, arren, / ontsa bizitzeko garrak.

Gureganik joaitan, / har ezazüe züen bidea;
Denetan ekar bitzazüe / zorihona bai bakea.

[IV]

DABID PASTORALA



Junes Casenave harpe bateko aitzinean
https://herria.eus/3469/kronikak/egun_eta_bihar

Lehen hitza

Agur, züer, jente honak,
gure ikustera jinik,
Hanitx Zibero hontarik,
bena ere bestetarik.

Pastoral hontan deizüegü
agertüko Dabid errege;
Nolatan bizi izan zen,
eta gizon arrunt balde.

Betlehemen sortürik zen,
bere gaztaroan artzain;
Potiko bilagorria,
eta eder handi bezain.

Ele, müsika hontzale,
kantari bere herrian,
Koblakari ere zen,
ezagütürik orotan.

Zaul erregea, arren,
zainetarik beitzen eri,
Ken lezan gaixto hortarik
Dabid zeioen igorri.

Güdari gaitza zen ere,
oi! Goliat züan eho;
Hamalarrükatü züan
eta harriaz xüen jo.

Zaul bekaixtitü beitzen,
bera gorde zen bortüan;
Zaulen seme, Jonatan,
adixkide handi züan.

Zaul erregea beitzen,
Jinkoaren gantzütüa,
A! Dabidek harentako
bazüan errespetüa.

Güdükatzera joanik
Zaul eta Jonatan,
Jakín züan hil zirela:
zen nigar turrustan.

Ezarri züen, ordüan,
arrunt Judako errege;
Haatik, Izraeltarrez
bertan nausitü zen ere.

Jerusalemen sartü zen,
egin züan Hiri nausi;
Eta Jinkoaren kütxa
hiriala züan jaitsi.

Uri güdükan zelarik,
hartü zeion emaztea;
Eta esperantxa züan
haurtto baten ükeitea.

Ordüan, erregek züan
ehoaraziko Uri;
Etsaien erdi erditan
haren manüz züen jarri.

Natan profetak zeitzon bai
egia handiak;
Eta Dabidek aitortü,
apalki, egin gaizkiak

Bake eta hontarzünean
bizi zirelarik oro,
Absalon bere seme bat
aitari zen oldartüko.

Eta Dabid ihes joan zen,
Absalon jo ez nahian;
Semea ehoko züen:
aita zen pena handian.

Hil aitzinetik, Zalomon,
Betsabek eman seme bat,
Bere ondoko egin züan,
errege Izraelentzat.

Bizitze hunkigarri hau
emanen dügü ejerki;
gozatüko gira
ordü zonbaitez züeki

I. jelkaldia

*Jelki Samuel apeza, Jeze Dabiden aita, Anania,
Zaul errege, Jonatan Zaulen semea, esküin*

Zaul

Izraeltarren errege,
Jinkoak üzten näü bazter;
Haren gogo gaixto batek,
emanik niz lotserier.

Samuel

Hor badüzü potiko bat,
Dabid düana izena,
Herrian ezagütürik,
arrabitakari hona.

Hartüko zütüalarik
arren gogo gaixto horrek,
Arrunt arintüko zütüe
emanen deitzün ahaidek.

Anania

bestalde güdükari,
Gizon eder, bilagorri,
eta zoin elestari!

Agert Dabid taula zolatik; sar saibetsean egon; Samuel hüilant; Zaul baztert

Jeze

Hau ene seme gazteena;
orai artinokan artzain;
Hau dit ene arraroa,
so argi, tieso bezain.

Samuelek olioa bar; Dabid ünta eta mintza

Samuel

Jinkoaren izenean
beihiz oliostatürik,
egündanik izan hadi
bürüzagi plantatürik.

Zaul hüilant eta mintza

Zaul

Dabid, ene zerbütüko,
orai egonen zirade;
Egün güziez, lanetan,
ene lagün izan zite.

Jonatan

Aita, zer boztarioan
ezarten gütüzün egün;
Dabik adixkidetako
aspaldian hartü nizün

Emanbürüzagi ezaüggarriak

Dabid

Eman deitztazü ezpata,
soinekoak, gerrikoa;
Algarreki dügü beteko
gü biek egitekoa.

Jonatan

Eta aitzinetik biek
hartü gure hitzarmenak,
gure artean betikoz,
izanen dira eginak.

2. jelkaldia

Jelki Goliat, Dodo, Zibekai, Gedor, exker

Dodo

Berrogei egün girade
Sokon, güdükatzeke prest;
Izraelen armadatik
ez gitean hürrün saihest.

Goliat

Jakinarazi deiet nik
gizon bat ediren dezaen,
Biak borroka gitean
hebentxe lehen bai lehen.

Nik ehaiten balin badüt,
hurak gure zerbützüko;
Harek ni ehaiten banai,
gü oro haien menpeko.

Gedor

Hori date xüxenena:
bürüz bürü ari zitee,
Hain lüzaz egürükitzen
heben egoiteko orde.

Zibekai

Zoinahi güdüleri
Izraelek haütatürük,
Ahamen batez zük hura
zale düzü klukatürük.

Gedor

Holaxe apaintürrik
eta holako armeki,
Segür ez dük hik lotsarik:
borroka hadi azkarki.

Zibekai

Nolatan lotsa leiteke
zü üdüri gizandia;
Ez daiteke xütik egon
agertüko den etsaia.

Goliat

Porrokiko ditiat
Izraeltar eihartüak;
Nontik dütüe elkiko
ene heineko indatsüak.

Oro joan

3. jelkaldia

Jelki Satan eta Inpiltüa, zerbüt-xaria

Satan

Errak honat, Inpiltüa,
hatsarre hona diagü hau;
Pilistarrak, dütük, omen,
Izraeltarrentako barbau.

Inpiltüa

Loditarzüna ikusiz,
Goliat dizügü azkar;
Izraeltarrak ditizü
eretzean baleü txar.

Satan

Ikusi dütüka, hortxe,
Neskatilak gozatürrik,
Dabidez bai Goliateg, ,
bietzaz, lillüratürrik.

Inpiltüa

Zure ondotik nik ere
aira ditzadan belainak;
Gazteak eta zaharrak,
sogin ene iztezainak.

Dantza bera

Inpiltüa

Satan, Satan, ikusten dit:
franko bekaixtitürrik zira;
Bozt zite: bazterrak oro,
bertan, doatza nahastera.

Satan

Neskatila ejer horiek
ikus gitzaen gü biak,
Emanen ditiagü, arren,
hobekienik, jauziak.

Bera dantza

Satan

Boztaria diat ja nik
püntü horik biek emanik;
Algarreki airez aire
eman ditzagün gogotik.

Biak dantza; joan

4. jelkaldia

*Jelki Dabid, Zaul, Anania eta Eliab, Abinadab,
Xamua, Dabiden aurrideak, esküin*

Anania

Ikusi düzüe gizona
honat jiten petigora;
Egün oroz hüilantzen da
gü güzien territatzera.

Dabid

Hau ehoko düanari
zer ote emanen zaio,
Gure herriko bezkürak
dütüalarik xahatüko?

Anania

Erregek aberastarzün
emanen deio gaintika,
Alaba emaztetako,
Hontarzün mükürüka.

Eliab

Zertara, aurride txarra,
jaitsi hiz gure artealat?
Ediren ote hükea
ordari beste artzain bat?

Dabid

Ea, ikus hüilanagotik
Pilistar gizatzar hori?
Erdeintü gabe hori da
bühürtü nahian guri?

Abinadab

Hire belar handiaren
berri badakiat aski;
Hire bihotzaren kakoa
ezagützen diat segürki.

Zeren gazte hizalako,
botzik hartzen dük borroka;
Nola güdükatzen giren
ikustera jin hiz lauka.

Dabid

Zer hüts egin dereizüet
eni hola bühürtzeko?
Ala mintza ez naiteke
züen gana heltü ordüko?

Xamua

Uste düka gü girela
hire elen arrenküra!
Haurra txostakan bezala
ez dük joaiten güdükara.

Dabid

Errege, ez beza otoi
ihork heben bihotza gal;
Gizon tzar horren kuntre
ez niz borrokatzen ahal!

Zaul

Ez dük batere ahalik
Goliateren aitzinean;
Haur ttipi bat bezala hiz,
hura gizandi denean.

Dabid

Leho, hartzen hortzetarik
elkitzen ditit ardiak;
Bidazpetik hartü eta
ehaiten ditit güziak.

Zaul

Zer egin hezake
horren бүрү tapailoari,
Erredola, ezpatari,
bүрдүin soinetakoari?

Dabid

Hartz, leho aztaparretarik
ni elki nizan bezala,
Pilistar esküetarik
kentüko zütüet berala.

Zaul

Gaizoa! abil ordüan,
hire mengoari jarraik.
Eta izan hadi azkar,
hitan esperantxa diat nik.

Oro joan; egon Dabid; sar Goliat exker; sar angürüak

Aingürüak, kanta

Jinkoak zütü haütatü
Betlehem gantzütürrik;
Begiratüko beitzütü
Ez, arren, üken beldürrik.

Dabidek Goliat eho

Aingürüak, kanta

Jinkoa zureki dago:
eman deizü lagüngo;
dütüzü etsaiak,
salbatü Izrael osoa.

Aingürüak joan; gero Dabid

5. jelkaldia

Jelki Dabid, Zaul, Bila neskatila bat

Bila, kanta

Herri karriketetan barna,
Izraeleko emazteak
Doatza saldoka dantzan,
Aranaraztez kantoreak:

Zaul erregek eho dütü
etsai gogorrek milaka
Dabid güdariak, aldiz,
hertü mila eta milaka.

Bila joan

Zaul

Ene erresuma gainti
entzüten ditiat kantoreak;
Eta ez ziztak agrada
emanik diren eleak.

Dabid

Jaun errege handia,
ez ziteala erreüs izan;
Etsaiak goitü beitätüt,
zuretako dit egin lan.

Zaul

Güziek emaiten deitzek
mila eta milak oro;
Errege izan behar dük:
zer nahi hüke haboro!

Dabid

Bena Izraelentako
izan zira haütatüa;
Jinkoaz nausi errege
zü zirade gantzütüa.

Zaul

Hola behar likek izan;
Bixtatik nahi haüt elki;
Mürrüari lotü eta
kahatan txilintxau jarri.
(Zaulek Dabid ezpataz jo nahi;
Dabid baztert berritan)

Zaul

Ontsa ikusten diat orai
Jinkoa hireki dela;
Eta lagüngoia osoa
eni elki deitadala.

Harzak bürüzagigoa
mila güdükariena;
Hekilan batean abil
ahal bezain hürrünena.

*Dabid joan; Zaul egon erdi etzanik;
Ezpiritü Gaixtoa sar, exker*

Ezpiritü Gaixtoa

Hire albatto Mikal
Dabidi zioek etxekara;
hanitx gogoko zioek
Mikalen begi ñabarra;

Ütz ezaok emaztetako
eta zepo hona dükek;
Desara llabürrez Dabid
ehoko düe Pilistarrek.

Ezpiritü gaixtoa joan

Zaul

Ene eskü honek arren
ez dezala Dabid eho;
Hots! Pilistarrek dezaen
güdü gaitzetan jo!

Zaul joan

6. jelkaldia

Jelki Dabid, Zaul, Mikal, eta mixkandiak, esküin

Zaul

Eneki deiat ekarten
Mikal alaba maitea;
Hebentik harat beitate
arren hire emaztea.

Dabid

Jaun errege, nor ote niz,
eta zer ene aria?
Nolaz ere nahi naizü
egin zure sühigeia?

Zaul

Dabid ene gogoko hiz;
maite haüe mixkandiek;
Ene sühia hizala
jakin dezaela güziek.

Dabid

Hori hunki handiena
herritarren aitzinean;
Zure sühi izatea,
ni hain ttipi nizanean.

Zaul

Sosik ez diat nahi,
borroka hadi azkarki;
Pilistarrer behar deiek
ehün bat ezpata elki.

Dabid

Ene errege maitea,
izateko zure sühi,
Hola arrunt eginen dit
zük beitzü hori nahi.

Joan; satanak

7. jelkaldia

Jelki Dabid, Zaul, Mikal, Jonatan eta beste zorbait, esküin

Dabid

Horra, errege handia,
eginik hitzeman lana,
Zük galtegin zeneitan
beno handiago dena.

Berrehün Pilistar xüxen
eho beitüt zuretako,
Hortxe dira hen ezpatak;
ontsa dütüzü kontatüko.

Erakuts ezpatak

Zaul

Ikusten diat: Jinkoa
dük egiazki hire alte;
Hire ondotik beitütük
Izraeltarrek haüe maite.

Orai heben betatzen diat
aitzinetik hitzimana;
Emaztetazko har ezak
Mikal alaba düdana.

*Egin ezkontzea; Dabidek Mikal
besoan har, paseia, pausa; biak joan.
Zaul ebil ixilik*

Zaul

Egün güziez haboro
Dabid horrek lotsatzen nik;
Ordüan hastio beitüt
bertan ere hil behar dik.

Jonatan

Aita, Dabidek zuretzat
ez dizü egin ogenik;
Ez da hartü düan lana
zure irabazi baizik.

Zaul

Dabid aitzindariak
kausitzen dik güdüketan;
Besteak beno haboro
goresten düe orotan.

Jonatan

Galbideetan sartü düzü,
eho dütü Pilistarrak;
Jinko Jaunak dietzü eman
Izraeltarrer garaitzeak.

Zihaur, ikusi ondoan,
boztariatü zirade;
Zertako ixur odola?
Dabid eho ogen gabe?

Zaul

Ertzo izan behar diat,
hi hiz hortan xüxenean;
Arren nahi diat ützt dezaen
joaitera bere honean.

Joan; satanak

8. jelkaldia

Jelki Dabid, Mikal, Jonatan

Dabid

Zaul erregek üken dü
Bekaixti builta bat egün;
Eta ene ehaiteko
badü gizon hanitx lizün.

Mikal

Ez bazira gaur berean
eremüalat joaiten,
Bihar, segür izan zite,
hilik zütüt edirenen.

Dabid

Ikusiko düalarik
zure aitak joan nizala,
Üdüri zaizüa, Mikal,
zü ütziaren zütüala?

Mikal

Erranen diot ordüan
zük mehatsatü naüzüla:
«Eitzi nezazü joaitera
edo hilik zira berala».

Dabid

Zer oker egin deiot nik
otean zure aitari?
Zertan jo düdalakoan
aiher da ene biziari?

Jonatan

Elk hori zure gogotik,
zeren hilen ez zirade;
Aitak ez dü deüs eginen
nihaurk ere jakin gabe

Dabid

Zure aitak badakizü
ene adixkide zira;
Berartan ari izan düzü:
«Ez ütZ Jonatan jakitera.»

Jinkoa bizirik den bezain,
bai eta zü ere Jonatan,
Aitortzen deizüet berala,
egün nüzü hiltzekotan.

Jonatan

Galbideetan zirela
üdüri bazaizü arren,
Erranen deitadazüna
zuretako dit eginen.

Dabid

Bihar argizagi berri;
kümitatü naü erregek;
Joanen nüzü hebentik:
zühaurk segretüa etxek.

Aitari erran izaozü
hau galtegin deizüdala:
Betlehemera joaitea
urte güziez bezala.

Han dit gizeliareki
bihar egiten bilkürä;
Banoa urtebürüko
oparien eskentzera.

Jonatan

Mikal, eitz gitzazü biak
elesta gitean aisago,
Ea zer eginen dügün
algarreki ikusteko.

Mikal joan

Dabid

Aitak erraiten badeizü
horiek ontsa direla,
Ni salbatürrik nükezü;
egin ezazü ahala.

Bena gaizten balin bada
badakizügü ordüan
Itxesa haütatü dizü,
beraz, ororen бүrüan.

Jonatan

Heben zin egiten deizüt,
banoazü aitarengana,
Jakiteko nihaurtarik
zuri egin gei düana.

Okerrerian nizala
zuri bazaizü üdüri,
Arrunt zure eskü hoiek
hilaraz nezaen dit nahi.

Jonatan

Joan eta gorde zite
ezpondaren gibelean,
Terreilka ariko nüzü
gainti hortan arratsean.

Gezien biltzera beitüt
mixkandi bat igorriko,
bera diot erranen
goratik, zük entzüteko:

«Gezia honatago dük»
oro hokian dirate;
Edo: «Gezia haratago»
hürrün ihes joan zite.

Kanta *adixkidantza*

[1] Adixkide bat badit nik;
Lagün izatea betitik,
Gure lehen haurtzarotik,
Zin dügü eginik.

[2] Haren soa begietan;
Ber gogoa ere bietan,
Lagüntza ordü gaitzetan
Eta herüstüretan.

[3] Bizitzean zer kanbio,
Gaüzek düe beste abio,
Sortü beita amodio;
Oi! Zer boztario!

[4] Lotzen niz lagün honari,
Barnea agertzen düit hari;
Ihardesten dü maiteki,
Hain gira etxeki!

Joan

9. jelkaldia

Jelki Zaul eta Jonatan

Zaul

Dabid, Jezeren semea,
zergatik da ez agertü,
Atzo eman apairüan
edo egünkoan pürü!

Jonatan

Egin ditazü galtoa
Betlehemera joaiteko,
Anaiekilan beitzüan
han opari eskentzeko.

Zaul

Gizakoiaren semea,
haren kide hiz holaz;
Ahalke izan behar dük
haren adixkidegoaz.

Jonatan

Bena zertako hil leite,
otoi, erradazü, aita;
Gaixkirik ez deizü egin,
mixkandi hon izan eta.

Zaulek ezpataz jo; Jonatan baztert

Zaul

Abil, ekar ezak hona;
kümitüala ez jitez,
Zor dik arrunt gal dezadan
ene esküez ehaitez.

Joan, Jonatan egon; Dabid sar

Jonatan

Otoi, etxek izadazü
adixkidantza osoa;
Eta eni zer hel ere
ikus dezagün geroa;

Dabid

Zük eni egin bezala,
hitza eman neizün zuri;
Ez dügü üko eginen
honartü hitzemanari

Zaulen odola, Jonatan,
ez dit ihoiz iraurriko;
Zaintürrik dira zureak
ni pürü bizi nizano.

Jonatan

Egon bite beti azkar
gure bien lokarriak;
Ondorekoeki ere
bilbatü hariak.

Joan

10. jelkaldia

Jelki Dabid, Eleazar eta lagünak, esküin

Akix

Keila diat setiatü;
orai sartüko nük hartan;
Dabid bai Izrael ere
goitüko zütüet bertan.

Dabid

Üztak deizkützüe elki
gure mozkinak ebatsi;
Berehala arte gaixtoak
behar dütüzüe ikusi.

Eleazar

Judako herrrian, Dabid,
lotsa izateko bada;
Pilistar indarren kuntre
nola bühürtüko gira?

*Sar Akix Gateko errege, Beor
eta etsaiak, exker*

Dabid

Keila diat soltatüren,
ez diat züen lotsarik;
Ez düzüe ihes eginen
ene eskü hoietarik.

Beor

Zer ote egin heikeyü
lagün opatü txarreki
Lehertüko zütüegü
gure indar azkarreki.

Dabid

Aigü, züetarik berala,
eginen diat ahamen bat;
abereak hartü eta
gizonak ehoko ditiat.

Güdüka; Pilistarrak ebo; besteak ibes joan

I I. Jelkaldia

Jelki Dabid, Ebiatar apeza, Eleazar, esküin

Dabid

Entzün dit Zaul Keilera
jitekoa dela orai;
Jakin eta hor girela
gütara nahi da jauzi.

Eleazar

Haren menpeko girela
erraiten dizü gisala,
Harresietan sartüak,
eroririk zepoala.

Dabid

Ausartüko dea Zaul
hiriaren aurritzera,
Nik entzün düdan bezala,
armeki jitez behera?

Eleazar

Güdozte handiareki
jaisten düzü guregana;
Eta gainti orotarik
setiatü nahi dü dena.

Ebiatar

Keilako aitoren semeak
iker itzazü hüilantik;
Saldüko zütüe Zauli
hek berantü gabetarik.

Dabid

Hebentik joan gitean
desertüalat erezka;
Gure ondotik jiteko
ez dü hartüko lasterka.

Sar gizerrailea

Gizerrailea

Gibeletik hona düzü
Zaulen seme bat hona,
Ikusi nahi züntüke,
Jonatan dizü izena.

*Gizerrailea joan; sar Jonatan;
Dabid eta Jonatan besarka*

Jonatan

Beldür gabe izan zite,
ni bizi nizano pürü;
Ene aitaren ezpatak
ihoiz ehoko ez zütü.

Dabid

Eskerrak emaiten deitzüt;
lotsa nündüzün Zaulen;
Bena enegana jitez
bati deitazü emaiten.

Jonatan

Izanen zira errege,
nihaur zure menpekoa;
Zaulek berak badakizü
hori dela heltzekoa.

Oro joan

I2. jelkaldia

Jelki Dabid, Natan profeta, Zepania, esküin

Dabid

Doi doia gorde gütüzü
Engadiko harpe hoitan;
Hüilantik jarraikitzen da
Zaul bere armadarekilan.

*Ager exkerreko zolatik Zaul, Abner,
lagünak; Zaul bazter joan*

Natan

Gorderik egon gitean:
sogizü ez düzü hürrün;
Bai bena zer heltzen zaio?
Honat horra düzü bakün.

Zaul zaragoilaka

Zepania

Egün Jinko Jaunak diozü:
«Hor düzü zure etsaia;
Esküetan üzten deizüt,
elk izaözü bai bizia».

Dabid

Jaunak begira nezala
erregeren hunkitzetik;
Zeren eta haren nahiaz
izan beita gantzütüririk.

Ixil ixila zoaza
horren kantü kantüala;
Pilda puxka bat motz eta
tziauri zure leküala.

*Zepaniak motz puzka;
Zaul elk, egon lagüneki*

Zaul

Harziloak oro ikert
Dabid non lürpealutzen den.
Ihizien arabera
zale düt jeikaraziren.

Dabid, bazterretik
ene biziaren galto;
Eperraren arabera,
bortüan nahi naizü eho.

Zaul

Arroilaz beste gaintitik
hiz, Dabid, oihüka;
Lagüneki horra nitzarik
atzamaitera koneska.

Dabid

Ikus ezazü oihal hau
harpean zuri moztüririk.
Barnen züntüdan ehoko
batere neke gabetaririk.

Soizü, ez düzü ez nitan
gaixtakeria handirik;
Egün Jinkoak züntüan
ene menpean ützirik.

Zaul

Aigü! aigü, seme Dabid
Ez deiat minik eginen;
Hiretako ene biziak
hain balio beitü üken.

Dabid bel

Dabid

Hala hala izanen da
ene biziarentako;
Jinko Jaunak naü ni ere
herstüretarik elkiko.

Zaul

Benedikatürik zira
Dabid semetto maitea;
Kausitüko düzü segür,
ütziren deizüt bakea.

Dabid

Banoazü bortüalat
kabale hontarzüneki;
Han dit bizipidea,
ihork ez dizadala elki.

*Zaul eta laüinak joan; Dabid egon;
sar ardiak artzaineki*

Kanta

Herritik joanik
Min handia düt nik.
Ziberoan dütüt ützi
Ene askazi, Mintzaje,
Lür eta jente
eta adixkide,
bai lagünak ere.
Ene herrian,
Lanik ez nüan
Batere atzaman.

Iparrealat
Hiri handialat,
Heltü nintzan behin behin
Eta ez jakin
Ez ontsa
Zer lan Hersa.
Hiriko herotsa!
Jin zeitadan lotsa.
Ene herrian,
Bake banüan,
Laket oihanean.

Geroztik egün
Bizi niz ni hürtün.
Ziberoan dütüt gogo
Bihotzak oro.
Bai denak
Heben direnak
Dira hain ülünak!
Zoin lüze egünak!
Ene herrian, oi! ni agian
Biziko batian!

Oro joan

I3. jelkaldia

*Jelki Akix errege, Zur eta Pilistarrak,
Dabid bi Pilistarren artean, exker; Akix jar*

Zur

Hebentxe Izraeltar bat,
guregana jin zaigüna,
Sei ehün lagünekilan,
gure kide nahi dena.

Dabid

Zure begiko baniz ni,
otoi, parka izadazü;
Hiri batetan ohatzeko
eman izagüzü lekü.

Akix

Har ezak berala Ziklak
hor egon gabe haidürü;
Jar hadi bazter orotan
basabortüaren бүрү.

Dabid

Negebetarrer oroer
eginen deiet güdüka:
Irameleko, Judako,
Kenitakoer oldarka.

Akix

Bai ordüan, hantik landa,
ene bizi zain hizate;
Egonen hiza betikoz
gure lagüntzeko ote?

Dabid joan; oro joan; satanak

I4. jelkaldia

Jelki Akix, Zur, Beor, exker; Dabid esküin; Akix jar

Zur

Zer dirade gibelean
hebreatar itsusi hoik,
Herrokan ebilten ari,
azkenak, zure ondotik!

Akix

Zaulen mixkandia da;
hareki gaizki jin beita;
Ene begiraria dit
urte bat iraganik eta.

Beor

Igor ezazü hebentik,
ützüül bedi hirialat;
Ez bedi egon gureki
ez gitzan kodit hainbat.

Akix, Dabidi

Jinkoaren aingürtia
ez diat hi bezain agrada:
Ez herrarik etxek eni,
bena zoazte eta gorda.

Oro joan; Dabid egon

Dabid

Etsai güzien joitea
eginen düt botzik arren;
Hatik Izraeltarrik ez
nik ez düt ihoiz joren.

Joan

I5. jelkaldia

Jelki Dabid, bi lagüneki, esküin

Dabid

Jinkoak deigü betikoz
Zaul errege haütatü;
Ondotik jiten bazait,
gogo gaixtoak dü hartü.

Bena jakin behar dügü
beti gure bürü dela;
Eta begira dezagün
gure errege bezala.

Sar mezülaría

Gizerrailea

Izrael ihes joan da
etsaien lotserietan;
Hanitx eror eta hil da,
bai Zaul eta Jonatan

Dabid

Zer izan den erradazü;
nontik dakizü zük hori?
Zaul errege hil dela?
Jonataner zer da berri?

Gizerrailea

Nihaurk dizüt Zaul eho
zeren ez züzün biziko;
Hor haren bürü zerrenda,
ükaikoa zuretako.

Dabid

Tziauzte, ene gizonak,
hüilantxe zitee hona;
Errauts ezazüe bistatik
goza dezan bere hona!

Odol hori ixur bedi
hire büüala betikoz,
«Errege eho dit nik»,
egün erran düalakoz.

Ebo

Dabid

Hola hola galdüko düt
nornahi izanik ere;
Jonatani zin egina
ez düt hautse orai arte.

Kanta

Errepika

Izraelen ospea

Jorik izan da bixkarretan,
Gizon haütüen hiltzea
Borroka handienetan.

- [1] Jelboeko mendietan,
Ez ihitzik ez eburik;
Eta baserri galgarrietan,
Hantxe dirade eroririk
Bai bi gizon leialak
Bai erredolak.
- [2] Zaul bai seme Jonatan
Nitzaz biak maitatüak!
Beren bizitze eta hiltzetan,
Ez dira izan zapatüak,
Bi arrano lasterrak
Leho azkarrak.
- [3] Jonatan, zure hiltzeak
Osoki nizü tinkatü:
Jonatan, zuri ene nigarrak,
Bihotza beitzait erdiratü;
Gure adixkidantxa
Züzün bakoitxa.

Dabid, mintza

Goatza, orai har dezadan
erregearen büraztüna,
Judan eta Izraelen
berberra izanen dena.

Joan

I 6. jelkaldia

Jelki Dabid, Ebiatar apeza, Galaadetarrak, eskiin

Dabid

Hona Hebronen nizala
herritarrekilan egün;
Judan errege nizate,
züek beitzirae ene lagün.

Ebiatar

Orai, ene esküz, heben,
Judako hiri handian,
Herriak erregetako
hartzen zütü egün hontan.

Dabid

Züek Galaadetarrak
opohontzen zütüet botzik;
Zaul ehortzi beitüzüe
eskerrik hanitx diozüet nik

Hori egin beitüzüe
eta zonbat ez zait ohore!
Honkiak eginen deitzüet,
ene gaintitik nik ere.

Sar Aingürüak; kanta

Zaulen erresetüan
egon izan zira beti;
Jinkoak gantzütü eta
errege beitzüan jarri.

Ebiatar, *bar olio*;
ixur Dabiden büriüala eta erran
Jinkoaren izenean
ixurten dit olio;,
Honen indar bereziaz
har arren erregegoa.

Aingürüek, *kanta*
Herriareen bürüzagi,
zü Izraeleko nausi;
Etsaiak ürrent itzazü,
sail hori beitätü hasi.

Dabid, *kanta*
Jinkoak bere ahalaz
Judako errege näü jarri,
Bere indarra betikoz
nitara beitätü ekarri.

Jauna, ürrezko koroa
deitadazü ezarria;
Hitzeman düzün bezala,
eman, otoi, senteria.

17. jelkaldia

Jelki Dabid, Joab, Asahel, eta lagünak, esküin;

Abner, Onam, Elipaz, eta etsaiak, exker; Dabid jar

Abner

Oitean, hi hiz, Asahel,

ene ondotik hizana?

Eni jarraikitzearen

üztea dük hoberena.

Asahel

Dabidentako güdükan,

nük bai hire gibeletk;

Ez diat eküratü gei,

ez, hire zirikatzetik.

Abner

Otoi, orai hürünt hadi;

harzak esküin edo exker;

Ene lagün bat goit eta

gal hadi hebentik laster

Asahel

Heltübada gazte beinüz,

ari hiz nitzaz trüfatzen;

Bena ez nük gibeltüko,

nihaurk hi jo beno lehen.

Ahamen bat diat hitarik

arrunt eginen egün;

Ala ere ez dük uste

Asahel dela bihozdün!

*Güdüka; Asabel eho; ezar bazter;
sar Abisai, exker; Joab zolatik, esküin*

Abisai

Anaia eho beiteikük,
ükenen dük ordaria;
Llintxarki dük jo Asahel,
orai dük hire aldia.

Abner

Izanen ote girade
bata besteen oldarka;
Mana ezaezü anaier
eitz dezaen arrunt borroka.

Joab

Jinkoa bizi den bezala
ez bahü ere deüs erran,
Bardin züer oldartzea
orai arren ützi gei nüan.

Dabid

Bena Ixabalen orde
gei izatea,
baztertü behar dükezü
nahi badüzü bakea.

Joan; satanak

18. jelkaldia

Jelki Dabid, Joab, Benaibu Dabiden zaintzaleen bürüzagia, esküin

Abner bere zaintzaleeki, esker; Dabid jar

Abner

Horra zergatik jin nizan:
egin dezagün alkargoa;
Esküetan üzten deizüt
egün Izrael osoa.

Dabid

Alkartzekotan bagira,
nahi dit zure bermea;
Arrunt ekar izadazü
Mikal ene emaztea.

Abner

Enekilan jin da hona
Mikal zure emaztea;
Pilistarrak garaitüz
zor zaizü arrikustea.

Sarraraz Mikal

Dabid, Mikal besarka, mintza
Izraeleko zaharreek
nahi naüe erregetako;
Heki sarküretan jar zite
ni errege ezarteko.

Abner

Orai arren biltzen ditit;
haien errege zirate;
Jerusalemen jadanik
egin beiteizüt goiheste.

Dabid

Judako errege nüzü
Izraelek nahi beitü;
Esker hanitx deizüt zuri,
hortara beitzira heltü.

Abner joan bere lagüineki

Joab

Zer egin düzü, errege,
gibel beitüzü igorri?
Ützi düzü joaitera,
dolütüren zaizü sarri.

Dabid

Zühaurk ikus ezazü
zer düzün egitekoa;
Bai, Asahelen hiltzea
düzü mendekatzekoa.

Joab joan, Abner ebo

Dabid

Nihaur eta erresuma,
Jinkoaren aitzinean,
Abneren odolaz beti
xahü xahüa izan gitean!

Sar Joab

Joab

Abner borta aitzineala
deitü dit ezti ezti;
Eta sabelean jo dit
han elki diot bizia

Dabid

Odol hori eror bedi,
Joab, zure bürüala,
Zure ondokoetara
oroztatkoz hala hala.

Izraeleko herrian,
oroek jakin bezae ere;
Gizehaite hortan ez dit
ikustekorik batere.

Hortakoz, egün berean,
ürra züen soinetakoak;
Eta Abner omentzeko
jaunts itzazüe dolü zorroak.

Kanta *Abneren bilotsa*

Bürüzagi handi izanik ere,
Abner joan da hiltzera,
Eiloaren arabera,
Deüs borogatü gabe.

Ez zinen esküetarik estekirik,
Ez zankoak katietan.
Gaixtoen aztaparretan
Erori zira hilik.

Printze aipatüaren itzaltzea:
Ürrentü düe gizon gaitzek;
Hanitx penatü näü horrek
Ni, züen zaintzalea.

Joan

I9. jelkaldia

*Jelki Dabid, Benaiahu, Huxai etxeko lagiuna,
Ebiatar, Natan profeta, eskuin; Dabid jar*

Dabid

Ixabal, Zaulen seme,
Izraeleko errege,
Dakizuen bezala hil da;
Hanko alxia da ene.

Goatza Jerusalemera;
jarriren niz gazteluan;
«Dabiden Hiri» izena
Emanen deiot ordüan.

Benaiahu

Ipar hegoako bide
dükezü Jerusaleme;
Izrael, Juda, batürik,
dütükezü zure menpe.

Dabid

Orai enea beitate,
azkartüko dit hiria;
Etsaiari bühürtzeko
ezarten diot harresia

Huxai

Jinkoa, armaden Jinkoa,
betikoz zureki dago;
Zure erregegoa dü
Izraelen goretsiko.

Dabid

Jinkoaren untzia da
Obed Edomeren etxen;
Ezar Dabiden hirian
oihal etxolaren barnen.

Ebiatar

Goretsirik izan bedi
betikoz Jerusalemen;
Honki hori egin beitü
orozbatkoz düke omen.

Dabid

Artzain nintzalarik eta,
eginik izan niz printze;
Izraeleko herrian,
eginen düt nik bizitze;

Natan

Zure ondokoak dirate
etxondo eder betikoz
Erregegoaren alkia
haintako orozbatkoz.

Dabid, belariko kanta

Eta zer ote niz, Jauna,
zer ere ene etxea,
Zük beitzü azkar jarten,
hala nola den botxea.

Ata zuretako hori
izan düzü apürregi;
Zure agintzea date
gerokoentako argi.

Orai, Jauna, zure hitzak
iratün beza orozbatkoz,
Izraeleko errege
izentatü naüzülakoz.

20. jelkaldia

*Jelki Laxmi Pilistarren errege, Hori Moabitarra, Hadadezer Arametarra,
Hadad Edomitarra, Hanun Amonitarra, exker: Laxmi jar.*

Laxmi

Izraeleko errege
Dabid eginik izan da;
Galbide da oroentako,
Ez beitzai aski Juda.

Hori

Bai eta Jerusalemez
oso jabetü da berri;
Dabid izena emaitetz,
Hiri nausi dü jarri.

Hadad

Juda eta Izrael, biak,
bildürrik batarzünean,
Dira etsai handienak
gü zapatü beharrean.

Hadadezer

Ari beitzai gü hedatzen,
Izrael dügü behaztopü;
Jin da Eufрата artino,
honor ez dezake gü.

Hanun

dügü beste biderik
gerlan sartzea baizik;
Dabiden gizerraileer
ez eginez batzarririk.

Laxmi

Dabid düzü orotarik
Ezeztatü behar dügü
Hiri nausi dü jarri.
ez dadin jauz guregana.

Hori

Jordaneko ibaietik
beste gaintialat hürrün
Jin da gure altealat
gizon haitüeki egün.

Hadad

Moabeko gizoneki
eta Amonetarreki,
Naba Gazitüa gainti
lotüko gira bortizki.

Laxmi

Nik ja herra handi badit
errege Dabid horrentako;
Zeren horrek eho düan
ene anaie Goliat.

Hadadezer

Izraeltar giza txarroil
garkotx gogor horietzaz,
Ahamen bat eginen düe
gure indarrek arruntaz.

Laxmi

Errefaimko nabala,
gure ahal güzieki,
Gü ere jaitsiko gira
borrokatzeko azkarki.

Hanun

Bazter orotarik date
Izrael üngüratürik,
Eta gure güdariez
batbatetan oldartürik.

*Sar Dabid, Elkanan, Banaías, Joab,
Abixai, Uri güdülarien bürüzagiak, esküin*

Dabid

Ene eskü honek dütü
etsaiak porrokatüko;
Hurak zilatzen dü lürra:
Hala dütüt ürratüko.

Elkanan

Pilistarrer zale deiet
hartüren hiri nausia;
Eta gero nizateke
horien bürüzagia.

Banaías

Nik aldiz Moabitarrak
birazka dütüt ehoko;
Zati bat üztez bizirik
ükenen dütüt menpeko.

Abixai

Hala hala eginen dit
Edomitar etsaiari;
Beharko ziozü arren bertan
jarri ene zerbütxari.

Dabid

Amonitarrer nahi dit
zapaldi handi bat eman
Hanunek haien gizonak
ützi beiteizt esküetan.

Uri

Bai bizarraren erdia
moztü zeien tzarki
Eta zaragoilak ere
üzkü erditara elki.

Uri, etsaier bürüz

Züek eta Ziriarrak
ziratee zerbütinari,
Gure herrian hartürük
segari eta aixkolari.

Joab, Dabidi

Zure ondoan nündüzün
Xobax zünüalarik jo;
Begi klixka batez ere
hoik dütügü paxtextüko.

Joab, güdülarier

Züek, bihozdün güziak,
errege Dabidentako
Jarraik hasi sailari
lotsa gabe ürrentzeko.

Etsaiak, batak ibes joan, besteak esteka

Dabid

Horra zer egiten düan
gure Jinkoak etsaiez,
Bere esküez erraustez,
gü irabazle ezartez.

Dabid

Ützi dütüen idüriak
bil itzazüe orotan;
Sühaka piztürük erra
boztario handietan.

Joan

2I. jelkaldia

Jelki Dabid eta bere zain direnak, esküin

Dabid

Izraeleko gizonak
güdükatzera dira joan;
Dabid hirian egonik,
ni aldiz heben pausüan?

Harahonaka nintzalarik
palazioko heigoran,
Ikusi dit emazte bat
mainüa hartzen goxoan.

Zaintzale bat

Betsabe deitzen düzü
Eliam jaunaren alaba;
Eta Uri Hititarraren
emaztetto ederra da.

Dabid

Eder bai, zer emaztea!
begistatü dit nik ontsa;
Bürüa beitzait berotü
hüilan ere ito hatsa.

Arrunt ediren ezazü,
hona artino jinaraz;
Errozüe erregia
arrenküra dela hartzaz.

Joan; Betsabe ekar

Betsabe

Zük galtatzen beinaizü
horra nüzü zuregana;
Erran izadazü, otoi,
zer egin behar dü, Jauna.

Dabid

Kanporat zoazte güziak,
elki zitee hebentik;
Palazio barne hontan
ütz gitzazüe biak ixilik.

Zaintzaleak joan

Dabid

Ikusi zütüdalarik,
Betsabe, ene lilia,
Bihotza zitazü jauzi,
oro beitniz nahasia.

Betsabe

Jaun errege, hitz horiek
hanitx naüe ere hunki;
Sogin nahi üken düzü
nizan zerbüttxari honi.

Dabid

Erregearen nahiak
lehen lehenak dirade;
Eginik izan behar düe;
biak algarreki gaude.

Betsabe

Jakinik zira, ni nüzü
Hititarraren esposa;
Zuretako güdüan da,
Jauna, badakizü ontsa.

Dabid

Zühaur zira gizon gabe;
badakit zat nik horik oro;
Eneki tziauri arren,
ez egon hola haboro.

Joan; satanak

22. jelkaldia

Jelki Dabid. jar; sar gizerrailea

Gizerrailea

Jauna, hau Betsabek exi:
Haur beharretan düzüla;
Zütan sinetsi düana
Maita ezazü hala hala.

Dabid

Uri Hititarra diagü
ordüan hilaraziren;
Berantü gabe gütün hau
Joabi eman izaok arren.

«Uri Hititarra ezar
borroka erdi erditan;
Gibeletik elk zitee
aisa eho dezaen bertan».

Dolüa ützt bezain sarri,
Betsabek dü ahatzeko:
Ene emazte beitate
ükönen dü kontsolio.

Joan

23. jelkaldia

Jelki Dabid, Natan; Dabid jar

Natan

Bi gizon algar ondoan
bizi ziren ber hirian;
Bata aberats okitü,
bestea behar gorrian.

Gure lehenak bazüan
kabalaje zionea,
Bigerrenak ardixkot bat,
ttipiñi, maite maitea.

Berareki eta haurreki,
jaten züan, lo egiten;
Bere ürrüzüna bezain,
zainkatzen züan maiteki.

Egün batez, norbait jin zen
aberatsaren ikustera;
Honek ikusliarrari
ardia eman jatera.

Dabid

Ogen hori egin beitü
joitekoa da gizona;
bere ohointzarentako
ützüliko dü lauküna.

Natan

Bai, zü zira gizon hori;
horra Jinkoak zer dion:
«Zaulen eskütik kentüz,
zuretako izan niz hon.

Zure nausiaren etxen
zütüt ere sarrarazi;
Eta haren emazteak
besoetan deitzüt ützi.

Izrael, Juda, etxeak
üken dütüzü ondoko;
Zer nahi zure honetan,
egin neikezü orano».

Dabid

Zoin hon izan den Jinkoa
Izraelek ontsa daki;
Enetako betidanik
segür egin dizü aski.

Natan

Zertako ükatü düzü
zure Jinko Jaun maitea?
Laket ez zaiona ere
hartü düzü egitea!

Dabid, *belariko*

Jinkoaren aitzinean,
bekatü handi egin dit;
Jinkoaren aitzinean,
bekatü handi egin dit.

Natan

Bere aldetik Jinkoak
xuritzen deizü ogena;
Ez dizü nahi ikusi
gaizki egin deiozüna.

Goitzarren egin deiozü
aldi hontan Jinkoari;
Bizia ez dü ützi
sortüko zaizün haurrari.

Dabid

Nork jaki zer heltüko den?
ez dükezü holakorik;
Haurrak behar lükea hil?
ez, egonen da bizirik.

Natan

Halere beste seme bat
emanen deizü Betsabek;
Zalomon düke izena
sortüko zaizün haur horrek.

Kanta

- [1] Dohatsü gizona,
Hütsa kentürrik zaiona,
Oso garbitürrik.
Dohatsü Jinkoganik
Petxüan ez dena,
Dohatsü nahi gaixtorik
Gabe delarik.
- [2] Ni harahonaka
Nintzan oro oihü marraka,
Jinkoa zelarik
Nitzaz aidegaiztürrik,
Oi nigar hipaka!
Lastoa üdan xispiltzen;
Ni niz ximaltzen.
- [3] Ene hüts handia
Deizüt ezagütarazia.
Ez beitüt gorderik,
Bake düt zureganik.
Ene hüts handia,
Aitortü deizülakoz nik
Düzü ahatzerik.

24. jelkaldia

Jelki dabid, Huxai, Abixai, Benaiabu, esküin

Dabid

Jakin dit oldartü dela
ene semea, Absalon;
Eni kuntre bühürtzeko
bildü dizü hanitx gizon.

Huxai

Omen ützültzen ari da
Izraeltarren bihotza;
Jenteak ere saldoka
haren ondoan dabilta.

Dabid

Zale ihes joan gitean
ez gitzan arrunt atzaman,
Itxesa eta herioa
hirian heda ez ditzan

Sar Ximei, exker

Ximei

Abil, debrin hirotüa,
hi, odolezko gizona!
Zaulen erregegoa
bortxaka elki düana!

Huxai

Harri kaldüz ari zaizü
Ximei, Geraren semea;
Ele gaixtoak tütatüz,
zikintzen dü erregea.

Abixai

Tzakür ürrintzütü horrek
behar zütüa gaitzetsi!
Gure ondotik oihüka
ez dizügü behar ützi.

Ütz nezazü, Jaun errege,
hortara joaitera orai;
Hor berean eho eta
lepoa moztüko diot bai.

Benaiahu

Zü gure errege hona
holaxe erabilia!
Gizatzar horrek berala
gal beza bere bizia.

Dabid

Norbait eho leitekea
Izraeleko herrian?
Errege bezala ez niz
batere egin nahian.

Oro joan

25. jelkaldia

Jelki Dabid, Itai, Ebiatar, esküin; Dabid jar

Dabid

Gaüzak hokian ezarri
dütüt ene erresuman;
Ene herri osoari
züzentarzün düt eman.

Halere hon nizalako,
hona zer ikusten düdan:
Bazterrak nahasten dütü
Absalonek güzietan.

Ebiatar

Judako, Izraeleko
bizizale güzientako,
Apezak bai lebitarrak
bildü dütüzü hirialat;

Itai

Jinko Jaunaren biziaz
eta erregearenaz,
Bizi ala hil izanik,
ni zureki, egin ahalaz!

Herria bakean eta
Absalon zertan den sartzen;
Enegatik, maite beitüt,
ez izaozüe bizia ken.

Oro joan; Dabid egon

Dabid

Horik ene hüts handien
ondoramenak dirade;
Jinkoa, soginen beiteit,
jarriko da ene alte.

Sar Abimaaz

Abimaaz

Agur, ene Jaun errege,
Ekarten deizüt berria:
Zuri bühürtü gizonen
nausi zirade jarria.

Dabid

Lehen lehenik zer diozü
Absalon seme gazteaz;
Ez düzü, borrokatzean,
arauz jorik izan ezpataz!

Abimaaz

Joabek igorri nizü
ni, zure zerbüttxaria;
Abiatü nizalarik,
bazen alborots handia.

Kuxitarra, sar

Zük, errege, ene Jauna,
orai jakin ezazü hau:
Zuri bühürtü direnak
desegin dütügü briu brau.

Dabid

Lehen lehenik, zer diozü
Absalon seme gazteaz;
Ez düzü, borrokatzean,
arauz jorik izan ezpataz!

Kusitarra

Har bezae zure etsaiek
potiko horren saria,
Zuri oldartü direnek
egin beituë gaizkia.

Haritx bati biloetarik
txilintxau egon da Absalon;
Joabek bihotz erditan
sartü deitzo hiru azkon.

Dabid, nigarrez

Absalon, ene semea!
Absalon, ene semea!
Zertako ez niz ni hil!
Absalon, ene semea!

Oro joan

26. jelkaldia

*Jelki Dabid, Betsabe, Zadok apeza, Natan,
Benaiahu, Zalomon; Dabid etzanik*

Betsabe

Zin egin zünüan behin
zure zerbütxariari:
«Zalomon, zure semea,
errege nahi dit jarri.

Nitarik landa dükezü
zure semea errege;
Izraelen aitzindari
ene alkian dateke».

Dabid

Ene Jinko Jaun biziaz,
lohitik elki näüana,
Egün arren ürrentzen dit
ordü hartan hitzemaana.

Betsabe

Ene errege Dabidek
betikoz iraün dezala;
Hona züzen ari zira
ikusten dügün bezala.

Dabid

Zadok apeza, Benaiahu,
eta zü, profeta Natan,
Hiruak tziauzte hona,
hiltzekoa beitniz bertan.

Zalomon ene semea
gantzütürik izan bedi;
Izraeleko errege
ezagüt ezazüe jagoiti.

Ene alkian jar eta
ene orde errege da.
Bere menpeko har bitza
bai Izrael eta Juda.

Zadokek olioaz gantzü

Zadok

Bizi dadila Zalomon
errege berria;
Bazterrak zinkaz beterik,
oro bite boztaria.

Benaiahu

Zalomon izan dadila
zü bezain errege handi;
Eta handiago ere
nahi günüke ikusi

Dabid

Jinkoa izan dadila
oroez opohontürik;
Egün ondoko bat badüt
hil aitzin, alkian xütik.

Dabid, kanta

Beste gizonak bezala,
banoazü ber bidetik;
Gizon azkar izan hadi,
Arren, Jinkoari jarraik.

Jinkoaren lotsa düenak
züzentarzünean daude,
Goizan ortzargi bezala,
odei billumarik gabe.

Ebi erauntsitik landa
soropilak argi dira;
Ene etxeak hireki
eman dezala distira.

Dabid bil; eraman

Azken hitza

Begitarte hon deiküzüe
egin züek egün guri;
Esker hanitx deizüegü,
hain beitzirae maitagarri.

Gureki Dabiden sendak
jarraiki dütüzüe botzik;
Haren bizitza beita
hunkigarria hastetik.

Jente xehetik elki zen,
erregegoala heltüa;
Handitarzünen erditan
ez züan galdü bürüa.

Izraeleko jenteen
izan zen zerbütjazale;
Bakoitxaren hontarzünen
herrian begirazale.

Bere hütsak zapatürük,
ogena aitortü züan,
Parka galtoz, apaltürük
Jinkoaren aitzinean.

Horra Dabiden bizitza
nola izan den kartsüa;
Handitarzünareki dü
ezagütü bekatüa.

Hebentik joanen zirae
Bakoitxa züen etxera;
Züen bihotzaren barnean,
etxek Dabiden itxüra.

